

ttipi-ttapa



PLANTO EGITEKO EGUNA

Martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean, bizitzak erdigunean jarri eta greba egiteko deialdia egin du Euskal Herriko Bilgune Feministak. Eskualdeko talde feministek ere 24 orduko lanuztearekin bat egin dute. / 10

SINADURAK

MAITE BIDARTE SOTA / 3


AITZIBER ALMANDOZ LARRALDE / 4

MAIALEN SOBRINO LOPEZ / 4

ttipi txartela

Joseba Sorando Oñozola
72573152-A
2019/04
372

ZOKKETA / 64



Greziako errefuxiatuak laguntzen izan da Marifa Irazoki / 8



Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2019

Bertsolari Txapelketako azken finalaurrekoa igandean Lesakan / 18

Eskualdeko gazteen topaketa martxoaren 16an Elizondon / 45

Erratzuko Xabier Ibargaraik munduko pala txapelketa irabazi du / 53

Sarrerak salgai www.bertsosarrerak.eus atarian eta Lesakako okindegian

www.bertsozale.eus



LESAKA

Martxoak 10. 17:30ean, Kultur Etxean



Joanes Illarregi Marzol, Josu Sanjurjo Altzuri, Xabat Illarregi Marzol,
Alazne Untxalo Erregerena, Saioa Alkaiza Guallar eta Eneko Fernandez Maritxalar
Gai-jartzailea: Fernando Anbustegi Goñi

Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2019

Antolatzailea



Laguntzailea



berako agenda
.eus

Martxoa

berako agenda

Ekitaldien gaineko informazio
gehiago: 948 012 012 telefonoan
edo www.berakoagenda.eus

BERAKOUDALA

10 IGANDEA **EMANALDIA KALEAN OTSO, ETXEAN USO (PATATA TROPICALA)**

17:00 Kultur Etxean
Adina Haurrentzako
Sarrera: 4€
Argibide gehiago: www.patatatropikala.com
Antolatzailea: Labiaga Ikastola

14 ORTZEGUNA **TAILERRA KOADERNAKETA TAILERRA (ALAITZ URBELTZ)**

18:00 Herri liburutegian
Adina 8-14 urte

16 LARUNBATA **ANTZERKIA GHERO: AZKEN EUSKALDUNA (EUSKALTZAINDIA ETA TARTEAN TEATROA)**

19:00 Kultur Etxean
Sarrera: 7€ (aitzinetik salgai Xuga ostatuan)
Argibide gehiago: www.tartean.com

29 ORTZIRALEA **HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA**

Ipuin kontalaria: Alexia Papantchev
Hizkuntza: Ingelesez
Adina 5-10 urte
18:00 Herri Liburutegian

16 LARUNBATA **MERKATUA BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA**

10:00-13:30 Ricardo Baroja eskolako arkupeetan



NIRE TXANDA

MAITE BIDARTE SOTA

Imajinario kolektiboa

Gure imajinario kolektiboa hankamotza da. Pobrea. Injustua. Apenas agertzen da emakume izenik. Eta badakizue: izenik ez duena ez da existitzen. Jarri dut Wikipedian 'Euskal herritar ospetsuak' eta hara, ez omen dago nabarmeneko euskal emakume zientzialari, artista edo zinemagilerik. Zerrenda soilik gizonek osatzen dute...

Kontatu baitizkigute

Felix Likinianoren balentriak baina ez
Kaxildarenak. Juan Sebastian Elkanorenak baina ez Katalina Erausorenak. «Euskal sukaldaritza berriko»

Arzak, Berasategi edo Subijana ederki ezagutzen ditugu baina ez generazio horretako kide zen Tatus Fombellida donostiarra. Pedro Miguel Etxekineren berri badugu baina nekez azalduko dugu nor zen Josefa Molera.

Gure betebeharrak da imajinario hau aberastea. Etxean, ikastetxeetan... eta batez ere, hedabideetan.

«GURE IMAJINARIO KOLEKTIBOAN APENAS AGERI DA EMAKUME IZENIK»



EZPALA

TTIPI-TTAPAKO EMAKUMEAK

Patriarkatua patrikara!

Etxeko kontuak etxean gorde behar direla erakutsi digute... Emakumea, luzaroan, etxekotu egin dute. Oinarria aldatu ezean, etxetik eta etxera, nekez egingen dugu aitzinera. M8an denok eskubideak aldarrikatzera, guztiok bat egin eta sistema patriarkatua patrikan sartzera! Ez da atzoko leloa, ez da gaurkoa... Gurea behar luke orainak eta goeroak.

NABARMENTZEKOAK



IERA
AGIRRE
PILOTARIA



SAIOA
JAURENA
ERRUGBILARIA

Sasoiko dago Leitzako pilotaria, eta halaxe erakusten ari da Master Cup pilota txapelketan. Arrizabalaga lagun duela, igandean jokatu den finalerdietarako txartela eskuratu du.

Saioa Jaurena baztandarra Frantziako ligan ari da gaur egun, ASB Baiona taldean. Espainiako selekzioarekin Europako errugbi txapelketako finalerako sailkatu da, final aurrekoan Errusiari 41-0 irabazita.

ATZERA BEGIRA



2009-03-05 · TTIPI-TTAPA · 489 zk.

Leitzako Sarrio lantegiak 50 urte

Bi urtez obran aritu ondotik, 1959ko otsailaren 1ean zabaldu zuten Leitzako Sarrio paper-fabrika eta mende erdia aitzakia hartuta, erreportajea egin zuen TTIPI-TTAPA aldizkariak. Ehun bat langilerekin hasi zen lantegia eta horien artean ziren Jesus Azpirotz, Pilar Azpirotz, Juanito Alduntzin eta Felipa Aierdi. Horiekin bildu zen TTIPI-TTAPA eta ongi gogoan zizutzen hasierako urte haiek. Hasiera hartan lana gogotik egin behar izan zutela, «egunean 30 pezetako jornala» zutela eta «lana ongi eginez gero, txartel arrosak eta gaizki eginez gero beltzak» erakusten zizkietela kontatu zuten. Herria «asko aldatu» zela ere adierazi zuten: «langileentzako pisuak egiten hasi zirenean ordura arteko itxura galdu zuen Leitzak».



erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttiipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Fernando Etxeberria, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi, Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerreko Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdi Akelarre elkarte

2019ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	38€
Leitza	26€
Hego Euskal Herria	44€
Ipar Euskal Herria, Europa	83€
Amerika eta Australia	130€



KOLABORAZIOAK

AITZIBER ALMANDOZ LARRALDE

Hauteskundeak

Hitzak merke-zurrean dabilzkgun garai hauetan, hartu-emanetan hitzak baino egiten dugunarekin goazela aitzinera oroitu nahiko nioke nere buruari. Gizakiok komunikatzeko dugun gaitasunaren puska ttiki bat baita hitza, eta konparazioan aunitzez handiagoa gainerako guzia; gorputz-keinuak, ahots tonua, begirada, pentsamendua eta intentzioa zer erranik ez. Madrilen nintzela, fisikari frantses batekin ikasi berri dut amoros hitzaren erran-nahia. Amoros hitzak gizatasunaren oinarriko legea erakusten omen du. Gizakia gizaki ginen zibilizazioetan, hagitx aspaldi hartu baitzuen bere erran-nahia. Hitz guttitan errateko, bertzeei gaitzik ez desiratu eta ondokoaren onarekin bakoitzaren barrenak asetzeko gaitasuna omen da. Ez zen ez txoil nik uste nuena!

Hitzen erran-nahiak gure pentsamenduan bizipenei lotuta sortzen ditugun oroitzapenekin eraikitzen omen ditugu. Bizipenak, pertsonak adina badira eta pertsonak bere bizipenen arabera pentsamenduak eraikitzen baditugu

«HATSAPASKA HEZI GARA, EGITEAK IZATEA EMANEN LIGUKEELAKOAN»

ez gara konturatzen, beharbada ez gara gauza?

Hatsapaska hezi gara, egiteak izatea emanen ligukeelakoan. Gelditu gabe egiten ari garen bitartean gizakia ez baita gauza egiten ari den hura nahi duen edota bere barne baloreekin bat datorren edo ez erreparatzeko. «Zer moduz?» elkarri galdetzean, betiko erantzuna, «ezin ailegatuz» aditzera jarri gara. Hasieran elkarri erruki begiradaren bat oparitzen bagenion ere, aspaldian etsipena banatzen gabiltza. Joxe Ripiauen kantak dioen bezala, *Beti presaka eta korrika inora ez iristeko!*

Belaunaldiz belaunaldi jaso dugu gure mintzaira. Itxura batera hitz hutsak zirenak, berekin daramate gure arbasoen bizipenen puska bat. Izan zirenen ezaugarri, bizipen, baloreak, gaur gure zelulen zati dira, gure izatearen oinarria. Jaso dugun horrekin guztiarekin agertzen gara mundura, gure barrenak eta kanpotik jasotzen dugunaren artean pataska bat sortuz, momentu oro eraikiz eta deseginez. Dena begiratzen den begien neurrikoa izaki.

Agudo ditugu hauteskundeak, hitzetatik egitera pasatzeko aukera ezin hobea. Antzinako zibilizazioek sortu zuten demokrazia. Egiatzko demokraziak aukera guzien artean herriarentzat onena zenaren egokiera egiteko grazia zakarkien berekin. Denen artean, denen berezitasunak kontuan hartuz, eskuak zabalduz erabakitakoari eusteko gauza ziren jendea zen nonbait. Zibilizazio hartatik ere zerbait gelditzen ote da gurean? Saiatuko al gara bertze behin, euskarari eta herriari berak eman digun guzia amoroski bueltatzen?



MAIALEN SOBRINO LOPEZ

Amak eta indigenak

Urtero bezala ama hizkuntzaren nazioarteko eguna ospatu zen otsailaren 21ean eta aurten, gainera, Nazio Batuen Erakundeak 2019a Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtea izendatu du, beraz indar bikoitza izan zuen egunak.

Hasteko, eztabaida sortzen dute terminoek. Alde batetik, ama hizkuntza, etxeko hizkuntza edo lehenbiziko hizkuntza deitzeak jende sobera uzten du kanpo, gure hizkuntzaren biziberritze prozesuan hain garrantzitsuak izanik ere maiz imaginario kolektiboan bigarren mailako euskalduntzat ditugunak. Are gehiago, adibidez, Lorea Agirrek erraten du euskara hizkuntza emetzat dugula, etxekoa, maitatu eta babestu beharrekoa... bide hori aski ongi garatu ondotik hizkuntzaren eta generoaren ahalduntzea batzen ditu askapen prozesu bereberetan: jakin, jabetu, ahaldundu, boteretu. Ildo berberetik doaie aitzineko artikuluko *Jin, Jiyan, Azadi û Ziman* kurduen leloa (Emakumea, Bizitza, Askatasuna eta Hizkuntza). Bertzalde, hizkuntza indigena edo jatorrizko hizkuntza bezalako terminoen definizioa eskasa da eta mahai gainera ekarri ordez iduritzen zait euskaldunok (baina ez bakarrik guk) komeni zaigularik salto egiten dugula multzo horren barne edo kanporat, behelaino artean ez dugula sobera argi zer garen eta akaso argitzea ere ez zaigula sobera interesatzen.

Duela gutti Txerra Rodriguezek ama hizkuntzaren egunaren kontra (eta alde) idatzi zuen bere blogean eta ospakizuna berrizendatzea proposatu zuen: hizkuntzaren biziberritze mugimenduaren aldeko (nazioarteko) eguna. Urtearekin ere halatsu egingen nuke nik, izenetik hasita mundua hizkuntza guttitiuen alde mugitzera bultzatu, erratetik ekitera, Amets Arzallusek ere aski ongi erran baitzuen munduko bertze hizkuntza guttitiu aunitzendako baliagarri dena: «orain denak daude euskararen alde, baita bere heriotza diseinatu eta praktikatu zutenak ere». Otsailaren 1ean, New York-en Nazio Batuek duten egoitzan egin zen Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtearen inaugurazio ofiziala eta ekitaldi horretan Elias Caurey-ek hartu zuen parte. Elias Boliviako hizkuntza aktibista garrantzitsua da eta Garabidek eta Mondragon Unibertsitateak antolatutako Aditu ikastaroaren III. edizioan parte hartu zuen. Hemen hasierako bere esaldi bat: «Abya Yalako nazio indigenak beti egon gara hemen, gure plazenta hemen dago eta hemen hilko gara. Horregatik munduko foro honetan errespetua eskatzen dut gure lurrekiko eta gure hizkuntzekiko».

Terminoak termino, egoera da terminala: bi astetik behin hizkuntza bat hiltzen da. Edo hiltzen dugu, afera politikoa baita, milaka urteko historia, ondarea eta mundua eraldatzen segitzeko aukera. Akaso oraindik ere komeni da oroituaztea hizkuntzaren bidez komunikatzetik aunitzez ere haratago goazela, gure identitatea definitzen dugula, gure kultura eta historia babesten eta giza eskubideak defendatzen ditugula, gizartearen aspektu guztietan hartzen dugula parte eta, finean, hizkuntza etorkizuna eraikitzeko tresna baliotsua dela. Beraz, ezin dugu esperoan egon ekiteko, oroitu: jakin, jabetu, ahaldundu, boteretu. Hori da hizkuntza lankidetzaren egunerokoa, hortaz Garabiden antolatutako ekintzetan aurten bereziki auzolanera deituak gaude.

11 GALDERA LABUR

PAZITA ITURRIRIA GOÑI LEKAROZTARRA

«Eskoletara itzuliko nintzateke, horrek bizipoza eman dit»

Noiz eta non sortua zara?

Lekarozko Ortiborroan sortu nintzen 1940an. 14 haurride ginen, ni hamargarrena. Orain etxean bi gelditu gara, ni eta 90 urteko anaia.

Nolakoa haurtzaroa izan duzu?

Etxe handia genuen, baina baliabide guti. Nekazari etxea zen, aita maizter etorri zen. Pentsa, etxea ordaindu bitartean 14 haur hezten...

Laguntzarik izan zuten?

Beharrik izeba bat hemen gelditu zen. Jostuna zen eta hark janzen gintuen...

Eskolatik atera eta etxera lanetara...

Eskola bertan genuen eta handik atera orduko azienda-lanetara joan behar izaten ginen: behiak, ardiak, belagiak...

Dena dela, ikasketak atera zenuen...

Haur Hezkuntza ikasi nuen. Oronozen egon nintzen eta oposizioak gaituta Almandozera joan nintzen. 3 urtez egon nintzen hor, urtean 16.200 pezeta irabaziz. Egunez eskolan eta ondotik herriko 4 mutiligau-eskolakematen nizkien. Soldadu joan zirenerako eskutitzak idazten ikasi zuten.

Ondotik Iruñera jo zenuen ezta?

Bai ezkondu eta Iruñara joan nintzen. Seme eta alaba bat izan nituen eta sei urteren buruan alargundu nintzen...

Herrira itzuli eta irakaskuntzara berriz...

Seme-alabak hartu eta herrira etorri nintzen. Berriz irakaskuntza hasi nintzen Gartzainen.



Hasmentan 6 eta 12 urte bitarteko 45 ikasle nituen. Eskola akitura dantzak irakasten nizkien, sanmartinetarako.

Baliabide urriak gainera...

Estufa zahar bat baino ez genuen. Ez berogailu, ez telefono ez ordenagailu... Komunera joateko ere kanpora atera behar izaten zuten...

Bitartean euskara lantzen ere aritu zinen...

Bai, etxeko euskara eta hika bakarrik nekien eta beharra

ikusi nuen, eta nire kabuz aritu nintzen...

Zenbat urtez izan zara irakasle?

28 urtez, 64rekin erretiratu nintzen. Gehienbat 6-7 urtekoekin irakurtzen eta idazten ikasten.


Orain egunerokoan zer egiten duzu?

Anaia zaintzen dut eta astelehenetan ordu eta erdiz Elizondoko psikiatrikora joaten naiz boluntario. Euskara irakasten diot talde bati...

GOITI ETA BEHEITI



UTZITAKOA



Emakumearen Baratzean txikizioak



Arantzan halako maitasunarekin egin zen Emakumearen Oroimen Baratzean berriz ere hondatua agertu da. Triste da gero halako irudiak berriz errepikatzea...

Bakoitza bere lekutik joanda, hobe!



Leitzako Udalak oinezkoentzako seinalez-tapen horizontala berritu du eta segurtasuna bermatze aldera, piboteak jarri. Orain errespikatzea falta da!



IRAKURLEAK MINTZO

Utzi ikastola bakean

AINHOA SENPER MAZIZOR ETA IDOIA JORAJURIA TELLETXEA

LABIAGA IKASTOLAREN IZENEAN

«*Sometidos al adoctrinamiento en las aulas y al pensamiento único*». Ikastolako ikasleei buruz horixe bota du Berako UPNk *Diario de Navarra*. Batere lotsarik gabe. Gure seme-alabak, gure ikasleak, gure eskola-lagun eta herritarrak «*sometidos al adoctrinamiento en las aulas y al pensamiento único*». Bikain. Hamar puxtarri.

Aspaldi ikasi genuen nola jokatzuten herri honetako kultur eragileen kontra: bozgorailuetatik «*adoctrinamiento y pensamiento único*» bezalako zaborrak zabaldu, eta behin eta berriz errepikatu. Herri-mugimenduak deabruaren pare jarri eta gero mugimendu horiek zanpatzeko eginahalak egin. Ez da berria errezeta hori.

Gu ere ez gara atzo jaiok eta badakigu UPNk maiatzeko hauteskundeetako kanpaina politikoa abiatu duela jadanik. Zoritzarrez ez da gure seme-alabak kanpaina baten erdian jartzuten dituzten lehen aldia, baina argi utzi nahi dugu ez dugula hori inolaz ere onartuko. Lau boto zikinen truke gure seme-alabei eta haien heziketari eraso egin nahi dietenek jakin behar dute aurrean izanen gaituztela beti.

Ikastolako haurren gurasoak gara, ikastolako irakasleak gara, ikasle-ohiak, laguntzaileak... baina baita Berako herritarrak ere, eta ez dugu onartuko inork kanpaina politikoa herriko ikastetxe baten kontrako erasoetan oinarritzea.

Utzi ikastola bakean.

Altsasukoak aske

MILA SALGADO

Lau haizetara aldarrikatu nahi dugu justizia: Jon Ander, Jokin, Julen, Adur, Aratz, Iñaki eta Oihan aske gelditu arte!

Hori izan zen urte berriari eskatu geniona. Eta, urte berriak ekarri zigun apelazio-epaiketan Jon Anderri eta Juleni ukatutako sei lekuko onartzea. Urtarrilaren 23ko bistan, San Fernando de Henareseko Audientzia Nazionalen lekuko guztiek ukatu zuten Jon Ander Koxka tabernan egon zela istiluak gertatu zirenean.

Lekukoaren artean, Amaia testigantza oso garrantzitsua izan zen. Zergatik? Berak ikusi zuelako taberna barruan gertatutakoa, baina hori ez ezik, gertakariak jazo zirenean tenientearen andreagaiaren (Maria Jose) laguna zelako.

Amaiak esan zuen Maria Joserekin egon zela taberna barruan gau horretan, eta ez zuela agresiorik ikusi, txupito edalontziak hegana bano ez. Eta, kalera atera zenean, tenientea lurrean ikusi zuela eta bere ondoan zegoen lagunari laguntza eskaini ziola, baina Maria Josek laguntza ukatu ziola; eta, ez ziola erantzun hurrengo egunean bidali zion mezuari.

Maria Josek, berriz, kontrakoa adierazi zuen epaiketan, besteak beste: bortizki jipoituak izan zirela taberna barruan, eta inork ez ziela lagundu. Asuntoa da, Amaiak ez ezik, testigantza eman duten testigu guztiek ez zutela jipoi basatirik ikusi, eta bi agenteek eta haien bikoteek kontaktutako 'errelatoa' ezin izan dutela egiazki frogatu.

Hala eta guztiz ere, gazte batzuk bi urte baino gehiago daramate gartze-

lan, eta beste batzuk bederatzi hilabete egingo dituzte laster. Bitartean, gu lur jota gaude, ez baitugu ulertzen nola eman diezaioketen oraindikan balioa agenteen eta neska-lagunen 'kontaktuzunari'. Zein interes dago atzean? Dagoeneko, ez ote da nahikoa ordaindu?

Apelazioaren zain gaude, triste gaude, asko sufritzen ari baikara, baina baditugu motiboak berri onak jasotzeko. Ez dakit orain jasoko ditugun, horixe nahi eta behar dugu: hiru hitzetan, justizia eta egia aiton-amonaren egonezinak. Altsasukoak aske!

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Sartu
gure web berrian
WWW.SILOTITE.COM




www.silotite.com

Silo bolak egiteko plastiko berriak

Bazkak nutriente gehiagorekin
izateko

- Edozein belar klasetan erabilgarria
- Aukeran 500 mm eta 750 mmtan
- Zulatzeko gogorra eta tiramenduetarako sendoa
- Elastikotasun ezin hobea
- Memoria elastiko bikaina
- Ongi itsekitzen dena
- Baldintza atmosferiko guztietan erresistentzia onekoa eta UV egonkortasun handikoa
- Ingurumenarekin erasokorra ez den plastikoa



SILOTITE
by formipac



Silotite®. Segurtasunaren aukera

AROZ-BERRI, S.A.

irurita@arozberri.com - Pol. Zaldubia NA-8307, km 0,8 - 31730 IRURITA (Nafarroa)
Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - Faxe 948 452 103 - www.arozberri.com

«Lesbosen egindako egonaldiek bihotza ireki didate»

MARIFA IRAZOKI DENDARIETA ZUGARRAMURDIAR BOLUNTARIOA

Bigarren urtez segidan, Greziako errefuxiatuak laguntzen izan da Marifa Irazoki. Bertako errefuxiatuek pairatzen duten egoera latzaz eta hortik ateratako ikasbideaz mintzatu da

N. BAZTERRIKA ZUGARRAMURDI

Eman bezainbertze jaso eta irakatsi bezainbertze ikasteko izan dira Marifa Irazokirentzat Lesbosen (Grezia) Moria kanpamenduan errefuxiatuekin egin dituen egonaldiak. Joan den urtean herritar batekin izan zen, aurtan, berriz, kusi batekin eta heldu den urtean ere itzuliko dela argi du: «nire oporrak horiek izanen dira, han egun bakoitza bidaiaria baita».

Errefuxiatuak laguntzen izan zara. Kontaiguzu.

Urtarrilaren 7tik 30era bitarte Lesbosen egon nintzen, kusi batekin, Joxe Arburuarekin. Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) batekin, Refugees4Refugees, joan ginen, bertako errefuxiatuak laguntzeko asmoz. Gu *olive grove* deritzoten gunean daudenak laguntzen aritu ginen. Gune horretara ailegatu berri diren errefuxiatuak bidaltzen dituzte, Moriako kanpamentua leporaino beteta dagoelako.

Zein izan ziren zuen egitekoak?

Gisa guztietako lanak egin genituen: Moriatik arropak garraiatu, neurriaren arabera sailkatu eta errefuxiatuei banatu; han eta hemen garbiketa lanetan aritu ginen; haurrekin egon... Izan ere, Moriako kanpamendukoak ez bezala, *olive grove*ko haurrek ez dute eskolarik eta han ginenok halako lanak ere egin behar izaten genituen: irakasten eta haiengandik ikasten, jostatzin



Marifa Irazoki, siriar errefuxiatu batekin. UTZITAKOIA

eta hezten aritu ginen, ahal izan genuen heinean, elkar errespetatzearen garrantzia ere ikusarazi nahi izan genien. Berez hondartza garbitzeko asmoa ere bagenuen baina

«3.000 LAGUNEN TOKIAN 6.700 INGURU DAUDE MORIAN»

hilabete osoan egun bakarrean izan genuen eguraldi ona...

Gaur egun zenbat errefuxiatu daude Lesbosen?

Gobernuak Moriako kanpamenduan eta *olive grove* n 6.700

«BORTXAKETAK ETA ENGINUAK JASAN BEHAR IZATEN DITUZTE»

inguru daudela erraten du, baina aise gehiago dira. Egia da familia aunitz Atenasera bidali dituztela... Hori baliatzen dute guttiago direla errateko, baina han ere lepo daude. Gainera, ateratako kontaktuen dituzte, ailegatu direnez ez dute deus aipatzen... Areago, tokia bera 3.000 lagunendako prestatua da eta ia 7.000 daude. Gehienak siriarrak eta Afganistanekoak dira, beraien herrietan deus ez dagoelako jo dutenak. Haiek, noski, ez dakite zer topatuko duten, engainatuta joan ohi dira. Turkian lana bilatu dietela eta hegazkinetara txartela ordaindu dietela erraten diete eta hara ailegatu eta pasaportea uzten dutenean ez zaie inor agertzen, pasaporte gabe gelditzen dira, deus gabe... Orain arte etortzen ziren familiak dirua bazuten, mafiei ordain ziezaieketen... Orain, berriz, dirurik ez dutenez, guraso aunitzek haurrak bidaltzen dituzte. Han nintzela ailegatu zen azken txalupan 39 lagun etorri ziren, horietako 19 haurrak ziren eta gurasorik gabe zetozen.

Zein da bertako errefuxiatuek bizi duten egoera?

Ez dira bizi... Animaliak bezala dituzte, kanpamenduetan sartu eta esperoan: paperak egiteko esperoan, janaria emateko esperoan, arropa emateko esperoan, zerbait erosteko esperoan... Beti esperoan daudenez pazientzia finitzen zaie eta erotu egiten dira... Egoera latzak bizi dituzte: bortxaketak eta engainuak. Emakumezko aunitz bortxatzen dituzte, gau baten truk paperak eskuratuko dizkietela erranez... Ez emakumezkoak bakarrik, familiak ere suntsitu egiten dituzte. Gaztetxoak 18 urte betetzean gurasoengandik banatu eta bertze kanpamendu batera eramaten dituzte... Horren guztiaren ondorioz, gazteak beraien buruaz bertze egiten ari dira. Berriki hiru senidek egin dute; 24, 18 eta 17 urtekoak, hiru

kanpamendutan banatu zituztelako.

Zein da Gobernuak egoera horren aitzinean duen jarrera?

Ez du deus egiten. Joan den urtetik aurtengora ikusi dudana aldaketa bakarra zementu pixka bat jarri dutela izan da, kanpamenduak ez desegiteko. Baina bertze gauza batzuk ere egitekoak zituzten. Argi kableak aldatu eta lur azpian paratu behar zituztela errana zuten... Ez dute deus egin. Ailegatzen diren txalekoak uzteko kamioi bat paratu zuten, Atenasera eramateko, baina deus gehiago. Bi abokatu dituzte 7.000 lagunengatik paperak egiteko... Joan den urtean bortz edo sei zituzten... Elikadurari dago-kionez, neurri zorrotzak hartu zituzten eta horrek ere egoera kaltetu zuen. Erraterako, Zapareak elkarteak janaria bidaltzeko saiakerak egin zituen eta Gobernutik paperak eskatu zituzten... Horiek izan gabe ez zieten aitzinera egiten utzi... Zorionez, eta bederatzirik hilabetez gogor borrokatu ondoren, paperak lortu zituzten. Otsailaren 12an hasi ziren banaketarekin eta 1.300 lagunengatik jana banatu zuten... Gu han ginelarik oraindik ez zuten lortua. Arras gogorraz janaria lortzeko borrokatzen zutela ikusteak...

Eta duten osasun zerbitzua?

Ikaragarria da... Kontsulta tiki bat baino ez dute, hiru mediku dituzte hor. Hagitz muturreko kasuak bakarrik artatzen dituzte. Egia da badirela Gobernu Kanpoko Erakunde batzuk horretan dihardutenak baina kanpadendetan daude eta ez dute behar adina baliabide. Hortaz, horiek gaixoak ospitalera bideratzen dituzte baina, noski, han lehendabizi greziarrak artatzen dituzte eta ondoren errefuxiatuak. Bertze neska katalan bat ere han dabil eta horrek oftamologo aunitz eramaten ditu. Izan ere, bonbek lehertzean botatzen duten zikinkeraren ondorioz, haur aunitzek kataratak eta ikuseremu murrizta izaten



Boluntario guztiak eta errefuxiatuak egindako animazio-saio batean. UTZITAKOIA

dituzte. Berari esker Bartzelonako ospitaletik betaurrekoak eta audifonoak ere bidali zituzten. Emakume horrek berak ere emakumezko ginekologoak eramanez, bortz-sei hilabetetarako. Oro har, mediku, psikologo eta abokatu eskasia dago.

Bi egonaldiotan hamaika momentu biziko zenituen... Zein izan dira gogorrenak?

Aurtengoetan batean arroparik gabe gelditu ginen eguneko aipatuko nuke. Gau hartan kazkabarra eta euria egin zuen eta jendea arropak eskatzera etorri eta ez genuela ikustean frustrazio ikaragarria sentitu nuen... Samsa izeneko zazpi urteko neskatiko siriarra ezagutzeak ere hunkitu egin ninduen. Bonba bat bere etxe ondoan lehertzearen ondorioz, sorra da bera. Ez du ez solastatzen ezta aditzen ere. Gaixoa ezin da komunikatu eta beti neskak negarrez marrazten ditu... Joan den urtean, berriz, hirugarren eguna izan zen

«EGOERAK GAIN HARTUTA, JENDEAK BERE BURUAZ BERTZE EGITEN DU»

zailena, bi arabiarri *el pasillo de la vergüenza* egin zieten momentua. Kanpin-denda batean bertze familiarren bati ebasteagatik jipoitu egin zituzten. Ilaratan jarri eta harrira, joka... aritu ziren eta ondoren nagusiak zigorrak jositzen, gogor jo gainera. Poliziari deitzeko aipatu genien, baina hori normala zela erantzuten ziguten. Odolez beteta akitu zuten...

Hangoekin harremanetan segitzen duzu?

Bai. Adibidez, aurtengoa den urtean ezagututako pakistandar bat ikusi dut eta harekin egon naiz. Bertze familia baten bila joan nintzen, nire hango familia zena, baina haiekin egotea ez nuen lortu. Gerora, Atenasera bidaliak zituztela enteratu nintzen, are gehiago, gizonezkoa alde batetik eta emakumezkoa eta seme-alabak bertetik jarriak zituzten... Gizonezkoa bere buruaz bertze egiten saiatu zen baina mediku batek harrapatu egin

«HANGO ARGAZKIEKIN ERAKUSKETA BAT EGIN NAHI DUGU»

zuen... Bere telefono zenbakia lortu nuen. Orain, noizbehinka ahal duten guztiakin telefonoz, Whatsappez edo Skipez bidez egoten saiatzen naiz.

Nolako esperientzia izan da?

Sekulakoa. Han egun bakoitza bi egun bezala da, gauza aunitz gertatzen dira momentu guttitan eta hainbertze gauza ikasten dira: zenbat kezkatzen garen, zeinen gutti estimatzen dugun... Haiek irribarre bat edo besarkada bat aski dute kontent egoteko. Halako bidaiekin bihotza irekitzen da... Denok joan beharko genuke ikustera, zeinen ongi bizi garen estimatzeko, denok lagundu beharko genuke, bakoitzak ahal duen heinean: ez han bakarrik, hemen ere laguntza behar da eta guztiok pixka bat emanen bagenu... Ni itzuliko naiz, nire oporrak horiek izanen dira. Han egun bakoitza bidaia bat da. Hasiera zaila da. Egia da joan den urtean Ainara eta biok, itzuli ginenean, kontatzeko zailtasunak izan genituela. Argazki-erakusketa bat egiteko ideia esku artean izan genuen baina ez genuen garatzerik izan. Aurtengoa egiteko asmoa dugu, Ainara, kusina eta hirurok garelako eta bi tokitan egon garelako aprobetxatuz...



Otsailaren 16an Elizondo egindako prentsaurrekoan, Baztan-Bidasoaldeko emakume feministek grebarako deia egin zuten.

Emakumeak karrikak hartzeko prest

Euskal Herriko Mugimendu Feministak ortzirale honetarako, martxoak 8, deitutako egun osoko greba deialdiarekin bat egin dute eskualdeko hainbat emakume taldek. Horren bueltan, elkarretaratzeak, emakateak, manifestazioak eta bertze hainbat hitzordu antolatu dituzte

G. PIKABEA

Egun historikoa izan zen joan den urteko martxoaren 8a, milaka eta milaka izan zirelako deialdiarekin bat eginez planto egin zuten emakumeak. Aurten ere bide beretik jo nahi dute eta ortziralean, Emakumeen Nazioarteko Egunean, greba deitu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Aurtengoa, ordea, 24 orduko lanuztea izanen da. Eskualdeko emakume feministek ere deialdiarekin bat egin dute.

Goldatz Berako Emakume Taldeak «iraultza behar dugulako, sistema hautsi eta eraldatu behar dugulako» bat egin du grebarekin eta Baztango martxoaren 8ko lantaldeak «borroka ez delakoz akitu». Leitzako emakume taldea ere lanean ari da eta «aurten urrats kuantitatibo eta kualitatibo»

eman nahi du: «eskaera zehatzekin gatoz, biziki sentitzen ditugulako zapaltzen, erasotzen eta mespretxatzen gaituen sistema honen kateak». Lesakako Emakume Taldeak, berriz, «emakumeon lan guztiak ikusarazteko eta eskubideak aldarrikatzeko greba egitea garrantzitsua» ikusten du. Areago, egun osoko greba «eragin-korra» izan daitekeela dio.

Joan den urteko 'sorpresa'

Iazko martxoaren 8ak izandako «arrakasta handia» gogoan dute lesakarrek, eta baztandarrentzat «sorpresa handia» izan omen zen: «jendarteak feminismoaren beharra sentitzen duelako izan zuen halako erantzun indartsua». Geroztik «sistemaren desorekaren kontzientzia sakonagoa» lortu dela uste dute, «lehenago urteetan

baino ezagunagoak dira heteropatriarkatua, menpekotasuna, boteretzea edo androzentrismoa bezalako hitzak. Gaia karrikara atera da eta hori baikorra da». Baina, aldi berean, «kontrako jarrerak ere gehiago ikusarazi» direlakoan daude baztandarrek.

Goldatzeko ustez, «emakumeok esparru anitzetan dugun egoera eskasa» tarteko, «aldaketa sakon baten beharra aldarrikatzeko nahia eta gogoia izan ziren» iazko arrakastaren «gakoak». Emakumeek «urte-tik urtera gauzak gero eta argiago» dituztela diote: «gure artean elkarlana eta saretzea gero eta handiagoa da, gure eskualdean behintzat bai. Horrek indartu egiten gaitu».

Leitzarrentzat iazkoa «zirragarria bezain hunkigarria» izan zen. Gainera, «urrats bat gehia-

go» emateko balio izan diela aitortu dute, «iazko greban sortutako energiak mantendu egin dira eta joan den ekainaz geroztik, Leitzaldeko emakumeok subjektu feminista baten eraketan murgilduak gaude».

Bortz ardatz

Bortz ardatz izanen ditu aurtengo grebak: pentsiodunak, ikasleak, zaintza, enplegua eta kontsumoa. Baina zaintza paratu dute erdigunean. «Ingurukoen zaintzaz emakumeak arduratzen gara, gizonetzakoak baino gehiago, eta sistemari dohainik ateratzen zaio, lan horiei inolako baliorik eman gabe. Gainera, lan munduan ere, zaintza lanak prekarizatu-tenetarikoa dira eta neurri handi batean emakumeok egiten ditugu. Nahikoa dela erran nahi dugu eta bizitza erdigunerat ekarri», azaldu du Baztango taldeak.

Eskualdeko emakumeen egoerari erreparatu, Baztanen, «zaintzari arras lotuak dauden lanpostu anitz» daudela azaldu dute. Horrez gain, «landa eremua izaki, nekazariak hartzen dute etxeko lanaren kargarik handiena». Mutil-dantzen harira, «gatazka horrekin ezin akitu» gabiltzala aipatu dute: «tradizioaren aitzakian emakumeok eskubide gutiago ditugula pentsatzen dute zenbaitzuek, eta temati dabilzta aukera hori betikotu nahian».

«Sozialki hagitz eskualde tradizionala» dela gaineratu dute lesakarrek, eta «emaku-

«GIZONEZKOEK FEMINISMOAREKIN BAT EGINEZ AINITZ DUTE IRABAZTEKO»

«GU GELDITZEAN DENA GELDITZEN DELA ARGI UTZI NAHI DUGU»

ESKUALDEKO EMAKUME TALDEAK

meak batez ere zerbitzuetan eta zaintza lanetan» eta «gizonezkoak lantegietan» ikusten dituzte. «Sistema produktiboa gizonezkoen esku dago eta erreproduktiboa edo zaintza emakumezkoen esku».

Beratarrek ere «gure eskualdean ohitura eta tradizio anitzek emakumeok alboratu egiten gaituztela» diote, eta emakumeen egoeraz ari direla, «indarkeria matxista, lan baldintza prekarioak, balio sozial guttiagoko lanak, lan feminizatuak, soldata arrakalak, edertasun eta kontsumo ereduak...» gogoratu dituzte.

Leitzarrek, berriz, garbi dute «gure amona eta amek irabazitako espazio eta eskubideei gogor eusteko garaia» dela. «Agerikoa da nolako jarrera oldarkor eta erreazionarioa dagoen esparru askotatik emakumeok boteretzearen aurrean». Eskualdean ere, «emakumeak esparru askotan zapalduak, erasotuak eta ikusezinak» direla salatu dute.

Herriz herri hitzorduak

Hutsune horien kontra, «anitz, jendetsua eta indartsua» izatea nahi dute martxoaren 8a; «plazak beteta» ikusi nahi dituzte. Helburu horrekin, herriz herri hainbat ekimen egingen dituzte; tartean, 12:00etan, emakateak egingen dituzte Baztan-Bidasoaldeko herrietan. 17:00etatik aitzinera, berriz, Elizondoko plazan bilduko dira, 19:00etan Elizondon egingen den manifestazioan parte hartzeko. Leitzarrek ere «anbizio handiko» egitaraua prestatu dute. Egun osoko egitarauaren barne, 12:00etan elkarretaratzea eta 19:00etan manifestazioa egingen dituzte. Batean zein bertzean izan, «grebarekin bat egin eta plazara atera eta prestatutako ekitaldietan parte hartzeko» deia egin diete emakumeei.

Gizonezkoei deia

Gizonezkoei ere luzatu diete mezua. Baztandarrek «pentsatzen hasteko, maskulinita-

Martxoaren 8an greba egingen duzu?



AMAIA UITZI | GOIZUETA

«Protesta egitea beharrezkoa eta garrantzitsua iruditzen zait, baina aldi berean zaila da emakumeak gelditzea. Nik arratsalde geldialdia egingen dut eta egiten diren ekintzetan parte hartuko dut».



KORO IBARRA | LEGASA

«Emakume bezala libreki eta beldurrik gabe erabaki nahi dugulako, sistema patriarkalari planto eginez eta jasaten dugun diskriminazioa salatzeko, Emakumearen Eguna indartsu ospatu nahi dugu».



SARA ARTIEDA | ITUREN

«Duela bi urte greba deialdirik izan gabe ere, nik lantokia itxi nuen. Eguneroko erronka dugu eta egun batean bederen, egunero egiten duguna egitetik utzita, ohartuko dira zenbat egingen dugun».



INMA GANDULLO | O. MUGAIRI

«Oraindik ere baztertu, ikusezin bihurtu, jo eta hiltzen gaituzte eta justiziak eta estatuek ez dute neuririk hartzen. Greba egingen dut, baina hiru orduz, gutieneko zerbitzuak egin behar ditudalako».



ADELA ARLEGI | LESAKA

«Aurten ere greba egingen dut. Emakume jaiotzeagatik diskriminatuak gara eta hori tristea da. Eskubide berdinak izateko egunero borrokatu behar dugu baina martxoaren 8a egun aproposa da».



GARBIÑE MAIA | ETXALAR

«Greba egitea pentsatzen dut, gizartearen emakumeak duen papera aldarrikatzea garrantzitsua dela uste dudalako. Hagitz inportantea da egunero berdintasunaren aldeko pausoak ematea».



MAIA SARALEGI | LEITZA

«Bai, greba egingen dut. Emakume izanik, gure eskubideen alde borroka egiteko beharra ikusten dudalako eta zapaldua izan ez naizen eta erasorik jasoko ez dudan herri batean bizi nahi dudalako».



ANA IRIARTE | ARIZKUN

«Bai, zaintza lanen garrantzia aldarrikatzeko eta kontsumo ereduaren inguruan hausnarketa bultzatzeko; gure kontsumitzeko moduak ekoizteko modua baldintzatzeko ahalmena duela ohartarazteko».



HELENA XURIO | ZUGARRAMURDI

«Martxoaren 8ak balio dezala emakumeok pairatzen segitzen dugun diskriminazioa ikusarazteko. Nik greba egingen dut eta emakumei karrikara atera eta eguneroko borrokan segitzeko erranen nieke».

te eredu berriak lantzeko eta pribilegioak dituztela ohartzeko» eskatu diete: «feminismoarekin bat eginez gero ainitz dute irabazteko eta berdintasunean oinarritutako jendar-teak denondako lasaiagoak eta justuagoak dira».

Martxoaren 8ari begira, berriz, lesakarek, beratarrek eta leitzarrek «erdigunetik kentzeko» eta «euren inguruan dauden emakumei greban

parte hartzeko erraztasunak emateko» eskatu diete. «Zaintza eta etxeko lanez arduratuz, kontsumo greba eginez...».

Handia izan zen iazkoa eta hura gainditu nahi dute aurten. Leitzarrek «indar erakustaldia» izan dela diote, «emakume guztiontzat indarrak hartu eta lanean segitzeko erregaia». Beratarrek, berriz, «lehengo urteko aurreikuspenak gainditu eta aurten hori eta gehia-

go» izatea espero dute. Lesakarek argi dute «aldaketak maiz borroka bidez lortu» izan direla, eta «orain ere horren beharra» dagoela. Horretarako eguna izan da martxoaren 8a. Gainera, «gogotsu eta bizirik» daudela diote talde feministetako kideek. Gehiago ere aitortu digute baztandarrek: «24 orduko geldialdi bat eginez, gu gabe mundua gelditzen dela erakusteko gogoz gaude».

Heteropatriarkatuari planto egiteko deia egin du Goldatzek

Martxoaren 8rako hainbat ekitaldi prestatu ditu emakume talde feministak

TTIPI-TTAPA

Heteropatriarkatu kapitalistari planto egiteko deia eginez, ortzirela honetarako, martxoak 8, deitua dagoen greba deialdiarekin bat egin du Goldatz emakume talde feministak. Horrekin batera, hainbat ekitaldi prestatu ditu.

09:30ean ernatze feminista eginen dute herrian barna. 10:30ean lila jokoak antolatu dituzte Merkatu Plazan eta 12:00etan emakatea eginen dute Altzateko plazatik hasita. 13:00etan bazkari feminista

eginen dute Merkatu Plazan. Autogestionatua izanen denez, bakoitzak berea eraman behar ko du.

Arratsaldean, Elizondon eginen diren eskualde mailako ekitaldietan parte den deia egin dute Goldatzetik. Horretarako, 16:00etan Baztanera joateko autobusa antolatu dute. Txartelak Errekalde eta Katatu ostatueta erosten ahalko dira, bortz eurotan. 17:00etan tribial feminista eta 19:00etan manifestazioa antolatu dituzte Elizondon.



Andoaingo jaialdian saritutakoak. UTZITAKOIA

Musika eskolako ikasleak sarituak izan dira Andoaingo piano jaialdian

TTIPI-TTAPA

Isidro Fagoaga Udal Musika Eskolako ikasleek hainbat sari jaso zituzten Andoaingo XIV. Piano Jaialdian: hamar urte dituen Ainhoa Elgorriagak aipamen berezia lortu zuen; Mikel Cano eta Jimmy O'Learyk, A mailan bikoteka, urrezko domina eskuratu zuten. Bai

Saioa Gartzia, A mailan bakarka, baita Axuri Zapiainek, Ione Huizik eta Onintza Goiak ere, A mailan hirukoteka, zilarrezko domina eskuratu zuten. C mailan, azkenik, Nahikari Loiarte eta Leire Ruiz bikotearen lana saritu zuten eta zilarrezko dominarekin itzuli ziren.



			
Egongelak	Logelak	Sukaldeak	Bainuak
			
Gazteentzako logelak	Sofak	Armairuak	Koltxoik

948 630 537 MUEBLESAMETS.COM



Tartean antzerki konpainiak *Ghero* antzeztuko dute kultur etxean. TARTEAN

'Ghero' antzezlana ikusteko aukera martxoaren 16an

TITIPI-TTAPAK ikuskizunera joateko sarrera bikoitza zozketatuko du Mecna duten harpidedunen artean

TITIPI-TTAPA

Tartean antzerki konpainiak *Ghero*. Azken euskalduna antzezlana taularatuko du martxoaren 16an kultur etxean. Euskaltziandiaren mendeurrenaren harira eginen diren egitasmo kulturalen baitan eskainiko dute.

Kutsu futurista duen antze-lanak 3000.urtera eramanez ditu ikusleak eta azken euskaldunaren istorioa kontatuko du. Koldo Mitxelena idazleak euskararen misterioa ez zela bere jatorria erraten zuen, bere iraupena baizik. Antzezlana mito horren inguruan dihardu,

euskaldunok gure gain dugun euskararen iraupenaren zamaz. 19:00etan hasiko da eta sarrerrak zazpi eurotan eros ahalko dira; aitzinetik Xuga ostatuan ere bai. TITIPI-TTAPAK ere ikuskizunera joateko sarrera bikoitza zozketatuko du Mecna duten harpidedunen artean.

Haurrentzat antzerkia igandean Igandean, bertzalde, hilak 10, Patata Tropikala taldeak haurrentzako emanaldia eskainiko du kultur etxean: *Kalean otso, etxean uso*. 17:00etan hasiko da, eta sarrera lau euro ordaindu beharko da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zuhaitzaren Eguna arrakastatsua

Manttalek eta Ehiza eta Arrantza Elkartek, udalaren laguntzarekin, antolatuta, Zuhaitzaren Eguna egin zen otsailaren 16an. Eguraldi eguzkitsua lagun, 80 bat haurrek parte hartu zuten eta zuhaitzak landatu eta gero gosari ederra egin zuten Ehiza eta Arrantza Elkartean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kaldereroak inauteriak hasteko

Inauterien atarian, kalejira egin zuten kaldereroek otsailaren 23an. Ibilbidean, San Jose Zahar Etxea ere bisita egin zuten. Eguna borobiltzeko, berriz, Herriko Etxeko plazan, ohiko ijitoen ezkontza egin zuten eta Ibon Irastortza Urdanitz eta Ane Osua Cabida izan ziren ezkongaiak.

ERRIGORA
Errigorarekin bat euskalgintza hauspotzen
eskaerak martxoaren 7tik 22ra

amaleun
ARRAINDEGIA

948 630 981 · 620 828 757 · Itzea, 6 · BERA · NAFARROA

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

Emakumeen mendi martxa herrian eginen dute aurten

Aitzinetik, martxoaren 8an hainbat ekitaldi antolatu dituzte, Akelarrea, kalejira, emakatea eta herri-bazkaria barne

AITOR AROTZENA

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Emakumeen Egunaren harira urtero antolatzen duen Bortzirietako Emakumeen Mendi Itzuliaren hamargarren edizioa herrian eginen dute aurten. Martxoaren 10ean, larunbatean 09:00etan abiatuko dira emakume mendizaleak plazatik eta 13:00etan elkarretaratzera eginen dute leku berean. Dutzatzeko aukera ere izanen da eta parte-hartzaileei salda emanen zaie. Gero, bazkaria izanen dute Kasinon. Bazka-

riaren prezioa 20 eurokoa eta martxoaren 5a bitarte eskura daiteke txartela.

Bertzetik, Lesakako Emakume Taldeak ere hainbat ekitaldi antolatu ditu martxoaren 8rako. 00:00etan Akelarre hasiera eginen dute Zarandiatik abiatuta (ondotik gaubela Arrano elkartearen). 09:00etan herri kalejira, plazatik abiatuta 12:00etan emakatea Koskontako bidean eta 13:30ean herri bazkaria Arrano elkartearen. Elizondora autobusa aterako da 16:30ean eta 21:30ean Akelarre bukaera plazan.

'Lesaka eta kultura: biziberritu nahi duzu?' solasaldia martxoaren 16an

A. AROTZENA

Lesaka eta kultura; biziberritu nahi duzu? goiburupean solasaldia antolatu du Lesakako kultura zaleak taldeak martxoaren 16an, larunbatean 11:00etan udaletxeko pleno aretoan. Gotzon Barandiaran idazlea eta Ximun Fuch an-

tzerkigile eta zinemagilea izanen da hizlari. Lesakako kultura zaleek diotenez, «kultur elkarte, talde eta eragile aunitz daude herrian, baina azkenaldian ez ote dugu inertzia funtzionatzen?». Bertze esperientzietatik ikasteko solasaldirako gonbitea egin dute.



RAFAEL ENETERREAGA

Arbolaren Eguna Gardelkopagoetan

Aitzineko larunbatean eremua garbitu eta itxi ondotik, otsaileko azken larunbatean 140 zuhaitz inguru (bertako haritza, gereziondoa, intxaurrendoa eta lizarra) landatu zituzten Gardelkopagoetan, Arbolaren Egunaren harira. Eguraldi bikaina lagun izan zuten lanerako.



UTZITAKO ARGAZKIA

600 kilokoan ere txapeldun Beti Gazte

680 eta 640 kilokoan egin zuen bezala, Beti Gazteko mutilen sokatira taldeak 600 kiloko Euskadiko txapelketa ere irabazi du. Joan den larunbatean 560 kiloko txapela ere jokoan izan dute eta izan daiteke lehen aldiz Euskadiko txapel guztiak urte berean irabaziak izatea. Ez litzateke marka makala izanen!



Magala

LESAKAKO
UDAL
HAUR
ESKOLA

2019ko irailean
hasiera emanen
diogu ikasturte berriari



LESAKAKO
UDALA

GURASOENTZAT JARDUNALDI INFORMATIBOA

Martxoak 6 | 17:30 | Magala Haur Eskola

*Gurasoentzat jardunaldi informatibora etorri nahi izanez gero, izena eman (martxoaren 5a baino lehen) magalalesaka@gmail.com haurraren izena eta adina zehaztuz.

AURREMATRIKULAZIOA

Martxoaren 1etik 15era

*2018an jaiotako haurrek eta 2019ko maiatzaren 12ra arte jaiotako behar diren haurrek egin dezakete aurrematrikulazioa. Aurrematrikulazioa udaletxean eginen da. Horretarako izen-emate orria eta beharrezkoa den dokumentazioaren zerrenda emanen da.

Edozein zalantza izanez gero, jarri gurekin kontaktuan magalalesaka@gmail.com-en.

Sagardotegira irteera martxoaren 23an izanen da

Adunako Aburuza sagardotegira joanen dira aurten gazteak eta Hernanin segida izanen du bestak

IRUNE ELIZAGOIEN

Gazteek antolatuta, aurten ere sagardotegira irteera egingen dute. Hain zuzen Adunako Aburuza sagardotegira, martxoaren 23an prestatu dute ateraldia. Horretarako izena emateko zerrendak Elutsa eta Herriko Ostatuan egonen dira martxoaren 10a arte. Izena ematerakoan 20 ordaindu behar dira. Autobusa 13:30ean abiatuko da herri sarrerako aparkalekutik eta goizaldeko lauretan itzuliko da Hernanitik. Egun-pasa ederra egiteko aitzakia bikaina.



Herriko gazteak sagardotegian.

Maiatzaren 4an izanen da Etxalarko IV. Mendi Itzulia

Maiatzaren 4an izanen da Etxalarko IV. Mendi itzulia. Hori antolatzeko martxoaren 9an, larunbatean 18:30ean Larraburuan egingen den bilera joateko dei egin die Altxata elkarteak herritarrei. Bilera ondotik berendua eskainiko diete bertaratutakoei.

Mountain Equipment kooperatiban sartu da Lorpen

Pozik daude lortutakoarekin, kate hori Kanadako kate garrantzitsuenetariko bat baita. Etxalarren T3 teknologia berezia erabilia hariak modu estrategikoan kokatuta ekoiztutako galtzerdiak, merkatuan dauden galtzerdi tekniko onenetakoak dira.



LANDAGAIN ESKOLA

100 pago landatu dituzte eskolakoek

Otsailaren 15ean ospatu zuten Landagain eskolako ikasle eta irakasleek Zuhaitzaren Eguna Axeri Lepoan. Eskolako ttikienak gurasoen laguntzarekin kotxez joan ziren eta gainerakoek oinez egin zuten ibilbidea. Eguraldia lagun, primeran pasatu zuten elkarlanean zuhaitzak landatuz.



IBON ERRAZU

Trikiti afaria Etxalarren

Ia 40 trikitilari eta panderojole elkartu ziren Etxalarren otsailaren 23an. Ilunabarrean herrian poteoa egin eta Larraburuan afaldu zuten inguruko herrietatik ez ezik, Gipuzkoa eta Bizkaitik gerturatutako musikariek. Trikiti doinuek goizaldera arte iraun zuten.

TELLETXEA
ARGAZKIGINTZA

LESAKA 948 637 281

Frutas de Verduras
ERRANDONEA, s.l.
FRUTAS EWA BARASCIAN

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

xirgil
jaione goya

ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA

IGANTZI

Gaztainbakarretik Frainera doan bidea zabaldu eta landaketak egin dituzte

TTIPI-TTAPA

Negu akabailako asteetan mugimendua nabaritzen da mendiko lanetan. Landaketak egin dira Frainen eta Petrikoren-bordaren inguruan: pagoak, haritzak, gaztainondoak... paratu dituzte bi mendietan, auzolanean gehienak, eskolako zuhaitz egunekoak barne. Bertzalde, Gaztainbakarretik Frain aldera zuzenean doan bidea ere zabaldu dute. Alderdi horretan sutea izan zenean suhiltzaileak pasatu ezinik gelditu ziren bidearen estutasunarengatik. Zati hori zabal-



Bidea zabaldu dute. OSKAR TXOPERENA

tzarekin irekia gelditu da pasabidea. Larreak erretzen ere arituak dira azken aldian: Apausko kaxkoa, Iratzelaieta eta Azaldegi alderdietan aritu ziren auzolanean.

Interneteko banda zabaldu dute herrian

Dagoeneko badaukagu Interneteko banda zabaldu dute herriko bi lekutan: kontsultategian eta herriko eskolan. Nafarroako Gobernuaren ekimenez egin dira banda zabaldu paratzeko lanak eta litekeena da, aitzinerago, zerbitzu hori bera Herriko Etxera ere zabaltzea. Eskolan paratu dute seinalea hartzeko antena eta handik eramanez dute Latsagan dagoen kontsultategiraino, kable baten bitartez. Horri esker, batean zein bertzean Internetera sarbide azkarragoa izatea lortu dute.

Mahai jokoen finalak Biltoki elkartean

Otsailaren 16an jokatu ziren Biltoki elkarteko mus eta partxis txapelketen finalak. Partxisean Korpus Etxeberria eta Antoni Goienetxe izan dira txapelak, Axun Iribarren eta Pili Iturbideri finalean irabazita. Musean Iñaki Goienetxe eta Javier Tabernak lortu dituzte txapelak, Luis Almanoz eta Patxi Loiarde garaituta. Ligaxkako sarien irabazleak Anuntzi Txoperena eta Kontxita Bizente izan dira partxisean, eta Iñigo Telletxea eta Juanjo Latasa musean, hurrenez hurren.



OSKAR TXOPERENA

40 mozorro ibili dira inauterietako eskean

Eguraldiak lagunduta, 40 mozorro inguru ibili dira aurten inauterietan baserri baserri eskean. Herriko txoko gehienetara zabaldu dute gazteek zalaparta eta umorea. Larunbat arratsaldeko Indiana Jones ikuskizuna arrakastatsua izan zen, hagitz entretenigarria eta haurren gustukoa.



BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
GIMNASTIKA ETA
FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak,
lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

PINARELLO
ORBEA CONDA SCOTT BH GIANT Liv MERIDA



JUANJO MIHURA
IGELTSERITZA-ALBAÑILERÍA-MAÇONNERIE

ERAIKUNTZA OROKORREAN

Urbide Etxea
31710 Zugarramurdi
Nafarroa

T. 0034 607 750 425
T. 0033 674 725 680
j.mihura@hotmail.com

Emakumearen ahotsaren aldarria martxoaren 8an ere

Elkarretaratzea, komunikatuaren irakurketa eta solaserako tarteak, izanen dira eguerdian plazan

TTIPI-TTAPA

Iaz bezala, Euskal Herriko Mugimendu Feministak greba deialdia egin du ortzizale honetarako, Emakumeen Nazioarteko Egunean. Baina horrekin batera, bertze hainbat herri eta hiritan bezala, Arantzan ere jarduerak izanen dira plazan.

12:00etan elkarretaratzea egingen da eta ondotik, *Emakumearen ahotsaren aldarria* komunikatua irakurriko dute; segidan, iaz bezala, aukiak jarri eta korroan, gogoetak eta

esperientziak partekatzeko solasaldiak izanen dira. Haurrak zaintzeko zerbitzua ere izanen da. Egun horretan, mantala Herriko Etxeko baloioan paratuko dute eta etxeetan ere gauza bera egiteko deia egin dute.

Bertzalde, arratsaldean, eskualde mailako manifestazioa egingen da Elizondon eta hor parte hartzeko mezua luzatu dute, baita igandean Lesakan egingen den Bortziritako Emakumeen Mendi Itzulira joateko deia ere.

Hegazkina ilargi distiratsuaren inguruan

Otsailaren 20an, Ilargia Lurretik hurbilago zegoenez, irudi ikusgarriak utzi zituen eta tartean, Mikel Larretxea herriko argazkilariak ateratako hori. 2026ra arte ez dira Lurra eta Ilargia hain hurbil egonen.



Eguraldi eta giro erogarria aurtengo inauterietan

N. ALTZURI

Otsailaren 14tik 16ra izan ziren inauteriak eta eguraldi zoragarria lagun, giro ederrean joan ziren.

Ortzegun goizean, eskolara urteroko bisita egin ondotik, bi taldetan banatu eta base-rietako bidea hartu zuten Mozorro Zuriak, Beñat eta Andoni Mitxelena akordeoi-lariek. Eskolako lagunak, berriz, Mozorro Zuriz jantzita, herri-kirol saio polita eskaini zuten frontoian.

Ortziralean, Mozorro Zuriak herrian barna ibili ziren eta

eskolakoak herrian eta base-rietan. Arratsean, poteoa eta bertso-afari jendetsua egin ziren eta goizaldean, Belfast taldearekin, Beñat eta Fernandezekin, dantzaldia izan zen.

Larunbat arratsaldean herri-ritar aunitz mozorrotu ziren eta gisa aunitzetako mozorroak ikusi ziren. Herriko trikitilari eta panderojoleek gidatuta, kalejira koloretsua egin zuten eta ondotik txokolate-jatea izan zen. Ilunabarrean, herri-kirol saio jendetsua egin zuten frontoian eta gauaz, dantzaldia izan zen Obaneuke taldearekin.



F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 - 31780 BERA
andonilaszaga@gmail.com

LABE ZAR
Astelehenetik ortziratera:
07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Jauzena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jauenabera@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxe konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



Josu Sanjurjo nagusitu zen Lizarrako saioan eta sorterrian kantatuko du.

Bertsolari txapelketako azken finalaurrekoak prest

Larunbatean Etxarri Aranatzan eta igandean Lesakan jokatu diren saioetan erabakiko dira azken finalistak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Bertsolari txapelketa azken txanpan sartua da, martxoaren 23an Iruñeko Anaitasuna kiroldegian jokatuko den finalerako zortzi lehiakideen bila. Hiru finalaurreko jokatzen hasiak dira, eta horietako bakoitzeko irabazlea finalera sailkatuko da zuzenean. Sailkapenaren araberrako bost bertsolari ere pasako dira martxoaren 23an Iruñeko Anaitasuna kiroldegian jokatuko den finalera.

Lehenbiziko finalaurrekoak martxoaren 3an jokatzea zuten Atarrabian Saats Kara-

satorrek (Tuterako lehen final laurdenetako saioa irabazlea), Eneko Lazkozek, Sarai Roblesek, Aimar Karrikak, Xabi Maia elizondorrek eta Joana Zigandak. Beraz, hau irakurtzen duzunerako, lehen finalista jakina izanen da.

Bertze bi finalaurrekoak asteburu honetan jokatuko dituzte. Martxoaren 9an, larunbatean 17:30ean Etxarri Aranatzeko Kultur Etxean ariko dira Urdazubiko final laurdeneko saioan nagusitu zen Julio Soto gaur egungo txapel-duna eta eskualdeko bertz bertsolari: Xabier Terreros eta

Iban Garro lesakarrak, Julen Zelaieta beratarra, Diego Riaño leitzarra eta Iker Gorosterrazu iturendarra.

Azkena Lesakan

Hirugarren eta hondarreko finalaurrekoa martxoaren 10ean, igandean 17:30ean hasita jokatuko dute Lesakako Harriondoa Kultur Etxean. Saio honetan ere sei bertsolarietatik bertz eskualdekoak izanen dira: Leitzako Joanes Illarregi (Iruritako final laurdenetako saioan nagusitu zen) eta Xabat Illarregi anaiak, Josu Sanjurjo (Lizarrako saioa irabazlea) eta Eneko Fernandez lesakarrak eta Alazne Untxalo iturendarra, Saioa Alkai-zarekin batera.

www.bertsosarrerak.eus atarian eskuratu daitezke saio guztietarako sarrerak. Saioen egunean bertan, gainera, zabalik izanen dira hiru aretoetako leihatilak, 16:00etatik aitzinera, baldin eta aurre-salmentako sarrera guztiak bukatu ez badira.

Xabat Illarregi txapeldun Abrako gazte sariketan

Nafarroako mugetatik harago, Xabat Illarregi bertsolari leitzarra irabazi du XVIII. Abra Saria, Getxon (Bizkaia). Otsailaren 23an jokatu zen gazte sariketa, saio bakarrera. Xabat Illarregirekin batera kantuan aritu ziren Elixabet Etxandi, Gorka Pagonabarra-ga, Ane Peñagarikano, Naroa Torralba eta Aitor Ugarte.

Bera-Goizueta ibilaldia prest du aurten ere Agerrak

Berako Agerra mendi taldeak urtero antolatzen duen Bera-Goizueta mendi ibilaldia martxoaren 17an egingen da aurten. Martxoaren 13a baino lehen eman behar da izena elkarteon edo 948 630362 telefonora deituz (gauez).

Agerratik (07:00) eta Aginatik oinez (08:15ean autobusa Agerran) edo Goizuetara autobusez (11:00etan abiatuta elkartetik) egin daiteke bidea eta Umore Ona elkartearen bazkalduko dute denek. Bertan ordainduko da bai bazkaria, baita autobusa ere.



Beratik Goizuetarako bidean.

1944ko kintoen bazkaria Zalainen martxoaren 23an

1944an Arantza, Igantzi eta Lesakan jaiotako kintoek martxoaren 23an egingen dute urteroko bilkura Zalain Jatetxean. Gainera, berezia izanen da ospakizuna, 75 urte beteko baitituzte aurten.

DenakBat Hemen erabili
kattagorria
 LESAKA
 948 627 514
www.kattagorria.com

JAIONE-GOROTEGIA
 Etxean egindako produktuak
 948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

BEKO
 LOREAK ETA LANDAREAK
 Frain Auzoa • LESAKA
 T. 948 637 826

IRU-BIDE
 OSTATU • JATETXEA
 Arratzubi Kalea 3
 31770 LESAKA
 T. 948 63 71 27

Kimaketak | Mantentze-lanak
 Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
 Ureztatze Sistema Automatikoak
 Paisajismoa

"TELLETXEA"
 Lorazaintza

T. 619 418 683 | LESAKA | johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealozaintza.com

ARGAZKI LEHIAKETA

erran.eus atarian

erran.eus
Mendialdeko Albisteak

Gaia: **ESKUALDEKO INAUTERIAK**



Argazkia: "Ikusiz ikasi" - Juan Carlos Olaetxea

Informazio +
erran.eus



OINARRIAK

1. **TTIPI-TTAPA** eta **XORROXIN** zabaltzen diren eremuetan sortu edo bizi eta 16 urtetik goiti duen orok parte har dezake.
2. Argazkiak 2019ko inauterietan ateratakoak izanen dira (argazkia non atera den zehaztu beharko da).
3. Argazkiak mugikor, tablet edo argazki kamerarekin ateratakoak izan daitezke, originalak eta bertze inon argitaratu gabeak. Koloretan edo zuri-beltzean aurkez litezke eta 300 px-ko bereizmena eta 28x16 zentimetroko gutxieneko tamaina izan beharko dute (baldintza hauek betetzen ez dituztenak baztertuko ditugu).
4. Argazkiak **ERRAN.EUS** artxiboan altxatuko ditugu eta guretzat gordeko dugu jasotako lanak publikatzeko eskubidea.

Argazkiak **ERRAN.EUS** atarian lehiaketarako prestatutako formularioaren bidez bidali beharko du parte-hartzaileak.

EPEAK:

- Argazkiak bidaltzeko epea: urtarrilaren 20tik martxoaren 22ra.
- **ERRAN.EUS**eko erabiltzaileen saria emateko **bozketa fasea**: martxoaren 27tik apirilaren 12ra.
- **Irabazleak**: **ERRAN.EUS** atarian jakinaraziko ditugu apirilaren 15ean.
- **Sari-banaketa**: maiatzean.

Animatu!

SARIAK

EPAIMAHAIAREN SARIA:

NEKATUR BONO ORLEGIA
2 lagunendako 2 gau eta 2 gosari



NEKATUR NEKAZALTURISMOA
ELKARTEA
Tel: 943 327 090
www.nekatur.net



ERABILTZAILEEN SARIA:

ELGORRIAGAKO BAINUETXEAN
2 lagunendako zirkuitua + otordua



HOTEL BALNEARIO ELGORRIAGA
Errotaldea, Elgorriaga
Tel: 948 45 60 45
www.sanvirilahoteles.com/
hotel-balneario-elgorriaga/



PARTE-HARTZAILEEN ARTEAN:

ELBETEKO POSADAN
2 lagunendako otordua



ELBETEKO POSADA
Nagusia, 1 ELBETE
Tel: 948 581 519
www.posadaelbete.com/eu





Arkupeak elkartekoen mus txapelketa eta bazkaria. JOSETXO APEZTEGIA

Arkupeak elkartekoen herriko besta ospatu dute

Mus txapelketan Fulgenzio Iriarte Juan Antonio Ibarra izan ziren txapeldun, Patxiku Zelaieta eta Santiago Arozamenari irabazita

MAIDER PETRIRENA

Otsailaren 24an herriko Arkupeak elkarteko kideek beraien urteroko besta ospatu zuten. 10:00etan meza, ondotik mus txapelketa Ariztigain Kanpinan eta eguerdian bazkari ederra izan zituzten.

Musean, Fulgenzio Iriarte eta Juan Antonio Ibarra izan

ziren txapeldunak. Patxiku Zelaieta eta Santiago Arozamena azpitxapeldunak, Migel Anzizar eta Jose Antonio Apeztegia hirugarrenak eta Juan Pedro Bertiz eta Jose Migel Zelaieta laugarrenak.

Bazkari eta bazkalondo eder batez gozatzeko aukera ederra izan zuten.

Arretxea eta Agirre Euskal Herriko mus txapelketako finalera

Otsailaren 23an Iruñian jokatu zen Nafarroa Garaiko azken fasean herriko bi bikotek parte hartu zuten: Jose Mari Arretxea-Jose Martin Agirre eta Ines Obregozo-Pattere Galtzagorri. Martxoaren 16an Lizarrako finalean jokatu dute Arretxeak eta Agirrek.

Frutaren kanpaina hasi dute eskolako ttikienen artean

Otsailaren 25etik aitzinera frutaren kanpaina hasia da Eskolan Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoen artean. Aitzineko urteetan bezala fruta astero banatuko dute ondorengo egunetan: asteartero, ortzegunero eta ortziraleroko.

Xanti Jimenez txapeldun Malerrekakoan

Doneztebeko Erreka elkarteak antolatutako Malerrekako eskuz binakako XVII. pilota txapelketako azken partidak jokatu zituzten otsailaren 22an eta 23an. Bertan herritarrek parte hartu zuten baita txapel bat ekarri ere. Errekako pilotarien artean jokatuak lau eta erdiko txapelketan, aurrebenjamin A mailan, Xanti Jimenez Etcheverry sunbildarrak Unai Oteizari 18-15 irabazi zion. Zorionak txapeldun!



ANITA ETCHEVERRY



UTZITAKO ARGAZKIA

Koldo Herrera denboraldia hasi du

Denboraldiari ekinen dio Koldo Herrera Urroz herritarrek Caja Ruralek antolatzen dituen karrerekin. Martxoaren 3an hasiko da Fiteron; 17an Murtxanten, maiatzaren 5ean Aiegin, Maiatzaren 19an Dikastillon; ekainaren 9an Zangotzan eta azkena, berriz, irailaren 22an urtero bezala Arazurin.



PRIM, c.b.

Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN




gauko konfort-kuxina





 Centro Prim
  regina tolosaechepare

Kalitatea eta esperientzia oinarri dituen zerbitzua

Ramuntxo ERRANDONEA TINTA LANAK

Zugarramurdiko Tinta Lanak enpresak 15 urteko esperientzia du etxe kanpoko zein barneko lanetan

TTIPI TTAPA

Esperientzia, profesionaltasuna, hurbiltasuna, aniztasuna... Aunitz dira Zugarramurdiko Tinta Lanak enpresak eskaintzen dituen zerbitzuen ezau-garriak. Baina behar bada hauek dira aipagarrienak: esperientzia –ia 15 urteko ibilbidea duen enpresa delako–, profesionaltasuna –hori delako bermatzen dutena–, hurbiltasuna –bezeroei tratua familiarra eskaintzen dietelako– eta aniztasuna –alor ugaritan lan egiten dutelako–.

«Obra haundiak eta ttikiak, etxe barneko eta kanpoko lanak». Guztietan aritzen dira Ramuntxo Errandonearen enpresan. Pintura lanen artean, «teilatuak, leiho-ateak eta paretak» margotzen aritzen dira.



Ramuntxo Errandonea. UTZITAKO ARGAZKIA

Gainera, «leiho-ateak tindatzeko tailer egokitua» dute. Dekorazioaren munduan ere sartuak dira eta, «barneko paretetan papera eta tela» jartzeaz gain, dendak dekoratzeko zerbitzua eskaintzen dute. Pladur lanak ere egiten dituzte, eta altzariak bernizatzen eta egurrezko zolak jartzen ere aritzen dira, hala nola, parketa.

Zabaltzeko bidean

Bortz urtez bertze enpresetan lan egin ondotik, Errandoneak 2004an eman zuen bere gisara hasteko urratsa. Geroztik egin duen ibilbidearen arrakasta bistakoa izan da. Batetik, bakarra izatetik lau langile hartzera pasatu da. Areago: «Baztan-Bortziriak aldeko bertze langile baten bila ari gara». Eta bertzetik, «etenik gabe» lanean ari dira. Ipar Euskal Herrian dituzte bezero gehienak: «Donibane Lohizunetik Baionaraino». Prest eta gogotsu daude merkatua zabaltzeko: «orain Baztan, Malerreka eta Bortziritan hasi nahi dugu». Lapurdin duten erantzun ona ikusita, ez zaie zaila eginen bidea irekitzea.



📍 Casa Leku-Eder
Karrikamakur
31710 Zugarramurdi (Na)
☎ (+33) 06 03 347 076
✉ tintalanak@gmail.com
🌐 www.tintalanak.com



TINTALANAK

PINTURA
BARNEKO/KANPOKO



PINTURA DEKORATIBOA



EGURREZKO ZOLAK



DEKORAZIOA
DENDA BERRIAK/KOMERTZIOAK



PLADUR LANAK



ALTZARIEN BERNIZADURA





Joan den urteko martxoaren 8an egindako elkarretaratze jendetsua.

'Carmen eta Lola' filma ikusgai martxoaren 10ean

Martxoaren 8an, berriz, Firin Farandula antzerki taldearen emanaldia izanen da zineman, 18:30ean

MARGA ERDOZAIN

Martxoaren 8a indartsu dator. Aurten ere Doneztebe zein Malerrekako indar metaketa handia espero dute. Ekitaldietan parte hartzeko gonbidapena luzatu dute.

10:00etan ernatze feminista izanen da. 11:30ean, berriz, eskola ondoko biribilgunean bilduko dira eta 12:00etan emakatea eta herrian barna itzulia egingen dituzte. Itzulian merkatari eta zerbitzuei informazioa zabaldu eta parte hartzera animatuko dituzte. 13:00etan Herrigunean afari autogestionatua izanen da eta

ondotik jokoez gozatzeko eta eztabaidetan parte hartzeko aukera izanen dute. Elizondoko bilkurara joan nahi dutenek ere izanen dute aukera. 18:30ean Firin Farandula antzerki taldearen emanaldiaz gozatzeko dute, zineman.

Larunbatean Mendi Abesbatzek (nagusiak eta tikiak) elizako plazan emanaldia eskainiko dute, 19:00etan.

Igandean, berriz, *Carmen eta Lola* filma pantailaratuko dute. Aitzinetik, 10:30ean, Errekako emakume lasterkiak Donostiko Lilatoira joanen dira.

Irriterapia tailerra martxoaren 29tik aitzinera

Begoña Indabereren gidaritzapean, sei orduko irriterapia tailerra antolatu du Udalak. Martxoaren 29an hasiko da eta apirilaren 5ean eta 12an izanen du segida. Interesatuak 25 euro ordaindu beharko dituzte eta izena emateko 659 37 99 17ra deitu behar da.

Askin haur-eskolan ate irekien eguna martxoaren 9an

Martxoaren 15ean akituko da 0-3 urte arteko haurrei zerbitzua eskaintzen dien haur-eskolan aurrematrikula egiteko epea. Larunbat honetan, martxoak 9, eskola bertatik bertara ikusteko aukera izanen da, ate irekien jardunaldia egingen baitute.

Hainbat film ikusteko aukera izanen da hilabete honetan

M.ERDOZAIN

Zinea maite dutenek aukera ederra izanen dute hilabete honetan. Martxoaren 10ean, *Smallfoot* filma euskaraz ikusteko aukera izanen da, 16:30ean, eta beranduago, 18:30ean, *Carmen eta Lola* eskainiko dute.

Martxoaren 22an Euskal Herriko zinema areto ezagunetan eskaini duten eta Ukerdi Film Festivalen gidoi onenaren saria eskuratu duen *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentala pantailaratuko dute, 19:30ean. 80 minutuko lanak



Aralarri buruzko filma hilaren 22an.

naturaren kontserbazioaren aldeko mezu garbia du.

Martxoaren 24an, azkenik, 16:30ean *La panda de la Selva* eta 18:30ean *Bohemian Rhapsody* ikusgai izanen dira.

Xabierrera joateko autobusa antolatu du Erreka elkarteak martxoaren 16rako

M. ERDOZAIN

Aurten ere, Xabierrera joateko autobusa antolatu du Erreka elkarteak. Autobusa martxoaren 16an, larunbatean, 04:45ean abiatuko da Beratik eta Donezteben 05:00etan egingen du geldialdia. Iruñera autobusez joanen dira eta ondotik Xabierrera dauden 42 kilometroak oinez egingen dituzte. Buelta, berriz, Xabierretik autobusez egingen dute.

Izen-ematea

Ateraldian parte hartu nahi dutenek Titi ostatuan edo 948



Aurten ere Xabierrera joanen dira.

45 0271 telefonora deituz eman beharko dute izena. Prezioari dagokionez, Errekako bazkideek 15 euro eta gainerakoek 20 euro ordaindu beharko dituzte.

Zuhaitzen Eguna izanen dute martxoaren 10ean

Urtero bezala aurten ere, 2018an jaiotako umeek, familien laguntzaz, zuhaitzak landatuko dituzte. Martxoaren 10ean, igandean, zehaztu dute hitzordua. Ekimen horrekin herriak aurten sortu diren tiki-ekien ongi-etorria egitea du helburu.

Ainhoa Sanz gogoan, herritarren esker oneko hitzak

Mila esker guk isuritako milakoak metatuta melodia ederra konposatu duzulako. Dagoeneko entzungai dugu. Zure eserkiak udaberria otsailera ekarri du, denboraren mugak gaindituz. Guztiagatik, mila esker eta adiorik ez. Maite zaitugu!

Sagardotegira irteera martxoaren 30ean

Martxoaren 15a, ostirala, bitarte eman daiteke izena 636 81 76 15 telefonora deituz

F. ETXEKOLONEA

Herriko gazteek sagardotegira irteera antolatu dute. Martxoaren 30ean, hondarreko larunbatean, zehaztu dute hitzordua eta Astigarragako Etxeberrira sagardotegira joanen dira. Herritarrei animatzeko deia luzatu nahi izan diete.



Astigarragan bazkalduko dute.

Matxoaren 15a arte eman daiteke izena

Izen-ematea zabalik da martxoaren 15a, ostirala, bitarte eta 636 81 76 15 telefonora deituz edo gazteetaren ba-

tekin harremanetan jarriz apuntatu beharko da. Antolatzaileek adierazi dutenez, herritarrezente animatuz gero, autobusa jartzeko aukera izanen da.

Leire Mariezkurrena eta Pili Telletxea mus txapelketan aurrera

F. ETXEKOLONEA

Otsailaren 23an jokatu zen Euskal Herriko Mus Txapelketako Nafarroa Garaiko finala. 157 bikote bildu ziren Iruñan eta horietatik 32 bikotek eskuratu dute martxoaren 16an, larunbatean, Lizarran izan den finalerako txartela.

Sailkatuen artean daude Leire Mariezkurrena eta Pili Telletxea eta eskualdeko herritar gehiago ere izanen dira (lesakarrak, doneztebarrak, sunbildarrak, oronoztarrak...). Guztira 128 bikote lehiatuko dira, 08:00etan hasita. Egun osoko egitaraua prest dute.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Emakumeen afaria larunbatean

Herritarrek martxoaren 8ko aldarrikapenekin bat eginen dute. Udalak, bere aldetik, olana zintzilikatuko du; eta herriko emakumeek afaria egiteko asmoa dute. Estalpean bilduko dira. Afalondoan kantuan eta dantzan ibiltzeko aukerarik ez da faltako.



OLATZ BALEZTEMA

Japoniar ipuinen bueltan, giro goxoa

Herritarrek japoniar ipuin tradizionalen bidez, bertako kulturaren zertzelada batzuk ezagutzeko aukera izan zuten otsailaren 15ean. Entzuleak gelditu, isilik eta adi egon ziren eta kontaketa eta kontaketa artean txalo bidez adierazi zuten gozamena.



Menu aukera zabala
Jangela pribatua
Bazkal ondorengo festa (aukeran)

Errotaldea z/g 31744 ELGORRIAGA (Nafarroa)
T. 948.45.60.45 | www.balnearioelgorriaga.com



sanvirila
hoteles de ensueño

Zure jaunartzean
besta egun zoragarria!

Emakumeen afaria martxoaren 9an Herriko Ostatuan

Martxoaren 7a, ortzeguna, izanen da izena emateko hondarreko eguna

ARKAITZ MINDEGIA

Martxoaren 9rako, heldu den larunbaterako, emakumeen afaria antolatu dute. Herriko Ostatuan bilduko dira eta bertaraten denak afari goxo baten bueltan elkartzeko aukera izanen du. Izena emateko hondarreko eguna martxoaren

7a, osteguna, izanen da. Txarrelak Herriko Ostatuan bertan eros daitezke 33 eurotan. Afari goxo-goxoa dastatuko dute eta afalondan kantu eta dantzan ibiltzeko aukerarik ez da faltako. Ekiñe eta Irati trikitalariak arituko dira mingain eta gorputzak astinarazten.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Emozioei buruzko ikastaro arrakastatsua

Abarun aterpetxeak otsailaren 23tik 24ra bitarte adimen emozionalari buruzko ikastaro interesgarria eskaini zuen. 15 lagunek eman zuten izena eta giro bikaina izan zuten. Jarduera praktikoak izan zituzten ardatz. Donna Apellaniz Nietok gidatu zituen saioak.

Ariztegi bigarren postua lortu du Zarautzen

93 altxaldirekin, bigarren sailkatu zen Maika Ariztegi Zarauzko Kirol Elkarteak antolatutako herri-kirol ikuskizunean. Virginia Finol izan zen garaile (94 altxaldi) eta Karmele Gisasola hirugarren (89 altxaldi).



ARTXIBOKOA

Birziklapen tailerrak egin dituzte Pulunpa eskolako ikasleek

ARKAITZ MINDEGIA

Bigarren ebaluazioan bisitariak eduki dituzte Pulunpa eskolan. Otsailaren 19an, Malerrekako Mankomunitatearen eskutik, birziklapen tailerrak egin zituzten. Tailerren helburuak gazte-gazterik horren garrantziaz jabetzea eta hori ikastea

izan ziren. Ez da izanen duten bisita bakarra. Izan ere, Patxi Zubizarreta eta Enkarni Genuaren bisita ere jasoko dute. Zubizarretarekin irakurri berri duten bere lanetako bat izanen dute hizpide eta Gernua Galzagorriak izeneko txontxongilo antzerkiak solastatuko da.

Gobernuak sustatutako fruta jateko eskola-kanpainarekin bat egin dute

ARKAITZ MINDEGIA

Nafarroako Gobernuak fruta eta barazkiak jatera bulkatzeko eskola-kanpainarekin bat egin dute Nafarroako 109 zentrok eta tartean izan da Pulunpa eskola. Egitasmoan Lehen Hezkuntzako lehenbiziako eta bigarren mailako ikasleek

parte hartuko dute. Kanpaina abiatu dute dagoeneko eta ekainera bitarte iraunen du. Astearte, ortzegun eta ortziraletan ikasleei fruta banatuko zaie. Kanpainaren helburuak ikasleak ohitura osasungarriak izatera bulkatzea eta obesitatea saihestea dira.

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAI A IREKIA
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · T.943 623 130

Mugikortasunaren alde bizikleta eskola abiatu nahi dute

Baztan-Bidasoa Turismoak sustatutako egitasmoan izena eman dezakete 10 eta 17 urte artekoek martxoaren 29ra bitarte

TTIPI-TTAPA

Bizikletaz ibiltzea pedalak asintzea baino gehiago da. Hortaz, Baztan-Bidasoa Turismoak bizikleta eskola antolatu du, Ederbidea egitasmoaren baitan sustatutako egitasmoa. Udaberrian egingen da bizikleta eskola, Bidasoko Bide Berdean barna. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek, DBH1etik DBH4 artekoek eta Batxilergoko lehen eta bigarren mailako ikasleek parte har dezakete jarduera horretan. Helburua: bide segurtasun arauak eta mekanika oinarri-

ko ezagutzak irakastea, bizikletaz osotasunean gozatzeko. Izena emateko epea zabalik da, martxoaren 29ra arte. Horretarako, 948 59 23 23 telefonora deitu behar da.

Edukiak

Bizikletaren ezagutzan sakontzeko oinarriko edukiak irakatsiko dizkiete gazteei: zirrikak zulatzen badira nola konpondu, mekanika pixka bat eta bidezko segurtasun arauak zeintzuk diren azalduko diete. Bizikletaz ibiltzerakoan konfiantza eta segurtasuna ber-



Joan den urtean lehen aldiz egin zen Ederbidea Zikloturista. ARTXIBOKOA

matzea da helburua eta hortaz, Bidasoko Bide Berdean barna ibilaldia ere egingen dute.

Helburuak

Gazteen artean bizikletaren erabilera sustatzea da helburu nagusia, bai toki batetik bertera mugitzeko, baita aisialdian erabiltzeko ere. Gazteei oinarriko ezagutzak ematea, mugikortasuna segurua eta bermez egiteko.

- Bizikleta mugitzeko tresna osasungarria eta jasangarria dela ohartaraztea.
- Eskualdean ditugun bizikletaz ibiltzeko bideen garrantzia eta erabilera sustatzea.
- Natur eta kultur ondarearen ezagutza sustatzea eta bizikletaz ibiltzeko bideetatik hurbil dauden zerbitzuak ezagutu.
- Baztan-Bidasoko eskaintza turistikoa indartzen lagunduko duten jarduerak bultzatzea.

DONEZTEBEN neurrira egindako etxebizitzak



PROMOCIONES
MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)

**2. faseko
AZKEN AUKERAK!**

Etorri eta erakutsiko dizuegu!



Ikusi pisu pilotoa!!



110.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren araberako finantziazioa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



Basoen Munduko Eguna ospatuko dute martxoaren 17an

Bertziko Natur Parkean eskainiko dituzte egun osoan eta lorategira sarrera doan izanen da egun osoan

TTIPI-TTAPA

Bertziko Jaurerria Natur Parkeak Basoen Munduko Eguna ospatuko du bigarren urtez. Martxoaren 17an, igandearrekin, hainbat jarduera egingen dituzte duen zabaleragatik baita duen balio ekologikoa-rengatik ere. Bidasoaldeko baso berezi eta ederrenetako honi buruz, informatu eta erakusteko.

Egun honek, NBEko Batzar Orokorrean horrela adostuta, pertsonen bizitzan basoek duten garrantziaz gizartea kontzientziatzeko helburua dauka, baita ingurumen iraunkortasunean, elikaduraren segurtasunean eta pobrezia-aren desagertzean betetzen duten paper erabakigarriaz ere. Aurtengo leloa honako hau da: *Hezkuntza eta Basoak. Basoa maitatzen ikasi ezazu!*

Egitaraua

11:30etik 12:30era Bertziko Jaurerriaren Basoaren 200 urteko historia solasaldi interesgarria eskainiko du Jesús Garitacelaya Saldise mendi ingeniariak.

12:30ean, 2019. urtean egingen den Bertziko Jaurerriko Natur Parkearen argazki lehiaketako oinarrien aurkezpena egingen dute.

12:40ean, *Bizitza oso bat zuhaitzez gozatzen* argazki erakusketaren aurkezpen eta bisita, Luis Lansa eta Vicente Garroren eskutik

11:30etik 13:30era, naturatik bildutako elementuekin haurrentzako tailerrak eskainiko dituzte doan.

Bisita gidatua

12:30ean eta 16:00etan. Aizkolegiko Jauregiraino pista nagusitik basoan zehar mikrobusez bisita gidatua eskainiko dute, ordu eta erdi ingurukoa. Salneurria: 5 euro pertsonako. Izen-ematea telefonoz: 948 59 24 21 martxoaren 9tik aitzinera, honako ordutegian: 10:30etik 17:30era.

16:00etatik 17:30era, naturatik bildutako elementuekin haurrentzako tailerrak eskainiko dituzte doan

Lorategi Historiko – Artistikora sarrera doan izanen da egun osoan.



TESTUA ETA ARGAZKIA: JAIONE ARIZTEGI

Auzolanean bi zebra-bide egin dituzte

Zenbait lagun auzolanerako bildu ziren otsailaren 23an. Udalak erosi duen errota zaharra hustutzeaz gain, bi zebra-bide margotu dituzte. Bata elizara joateko eta bertzea parkera. Leurtzara auto aunitz igarotzen direnez, lasaiago ibiltzeko aukera emanen die herritarrei berrikuntza honek.



TESTUA ETA ARGAZKIA: JAIONE ARIZTEGI

Sagardotegira irteera martxoaren 9an

Bertze urte batez, aurten ere sagardotegira irteera antolatuta dute Urrozko gazteek. Aspaldi antolatuta dago, eta martxoaren 9a izanen da hortaz disfrutatzeko eguna. 30 lagun inguru joanen dira Oianume sagardotegira larunbatean, eta joan-etorria autobusez egingen dute herriko plazatik.

Ezkontza gehigarria



Ezkontza tradizionalak indarra galdu ahala, ezkongaien gustuetara egokituta antolatu ohi diren ospakizunak nabarmen-tzen ari dira. Estiloa zehaztea da gakoa, horrek xehetasun guztiak lotzeko bide eman baitezake. Koloreen arteko harmoniak ere badu bere garrantzia. Bata zein bertzea aukeratu eta zure modura koloreztatu!

Aniztasuna nortasunarekin zipriztinduz


Aurtengo joera ez da zurruna izanen. Jantzi urdin eta beltz klasikoenetik hasi eta esteanpatudun modernoetaraino ha-maika aukera eskainiko dira. Garrantzitsuena aukeratu-ta-koari nortasun zertzeladak ematea izanen da.



ROBERTO VICENTTI
CERIMONIA
javier cañas
ETIEM
RAMON SANJURJO

Serapio Múgica, 11 • 20302 IRUN • T 943 612 626 • www.capelettimercheirun.com •

Estetika eta orrazkerak



Kris Ibilbidea
Leapaindegia

948 580 025 · Giltxaurdi, 14 ELIZONDO

Amaya Picabea
CENTRO DE ESTILISMO E IMAGEN

ANDREGAIENTZAKO ZERBITZU OSOA

- Ile-apaindegia -
- Aurpegi tratamenduak -
- Gorputz tratamenduak -
- Makillajea -
- Manikura -
- Pedikura -

Ameztiá · DONEZTEBE · 948 450 163 · @amayacentro

amura
ILEAPAINDEGIA

@amuralesaka

OSPAKIZUN BAT DUZU?

Orrazkera eta makillaje berezi bat eraman nahi baduzu,
ETORRI AMURARA

PERTSONALIZATUTAKO ILERAKO APAINGARRIAK ERE EGITEN DITUGU

948 637 797 Bittiriako plaza 1 LESAKA

Norberari egokitutako orrazkerak

Formalak edo informalak, bilduak edo erdi bilduak... aukerak mugagabeak dira. Adituek, joerez haraindi, norberaren ile, aurpegi, soineko eta estiloaren arabera aukeratzea gomendatzen dute.

Ile dezente eta luzea dutenen artean, txirikorda erromantikoak, alde batera edo gibelera orraztutakoak, dira proposaturiko aukeretako batzuk. Ile guttiago dutenezat, berriz, garondoan bilduak edo altuak nabarmentzen dituzte, eta halakoetan burukoak ere mesedegarri izan daitezkeela gaineratzen dute. Ile laburra duten ezkongaiak mozketaren arabera aukerak azertu behar dituzte.

Aurpegi luzanga dutenek aurpegiaren bi aldeetako bolumena bilatu behar lukete; eta biribila dutenek, berriz, ile-sortaren bat solte utz dezakete, luze sentazioa lortzeko. Ile bildu edo motots altuak ere lagungarri izan daitezke.

Uhalik gabeko eskoteak dituzten soinekoak ile soltearekin edo motots bildu altuarekin konbinatzea aholkatzen dute; itsasontzi-formako eskoteak garondoan bildutako orrazkerak edo txirikordak; eta bizkarra agerian dutenendako bi aukerak, bilduak zein solteak. Zenbaitek goizeko erritualerako bilduagatik, dantzaldirako soltatzeke moduan uzten dute.



Natural baina ikusgarri

Gehiegikeriarik gabeko makillaje naturalak izanen dira nagusi. Norberaren larruazalarekin bat datorren kolorea izanen da oinarri, marroi argiak gailenduko dira, erromantizismoaren eta goxotasunaren adierazle.

Begi-itzalen argitasunak eta ezpainetako koloreak naturaltasunaren mugak gaindituko dituzte. Larruazalaren, ilearen eta begien kolorearen arabera aukeratu eta... garrantzitsuena, zurekin bat datoirela egiaztatatu!

Mirador
de YRISARRI

ZURE EZKONTZA ETXETIK HURBIL


"Mirador de Yrisarrin", kanpoan zeremoniak ospatzeko hainbat toki daude: aperitiboa hartzeko mendiaren aurrean dagoen terraza handia eta banketea eta festarako, zutaberik gabeko areto zabala.

Hainbat sari dituen Teresa Gil chefaren proposamen gastronomikoa, elaborazio zaindua duen sukaldaritza tradizionalen oinarrituta dago.

Ezkontza ahaztezin bat nahi duzu?
Dei iezaguzu!


Igantzi


948 92 89 22
www.miradordeyrisarri.com
info@miradordeyrisarri.com



MARTA ÁLVAREZ / "Bodas para Dummies" liburuaren egilea

Mirador de Yrisarrin ospatzen diren ezkontzetan ukitu berezia nabari da. Izan ere, Marta Álvarezek, wedding planer ezagunak eta 'Bodas para Dummies' liburuaren egileak, du gune hau kudeatzeko ardura, xehetasun guztiak mimoz zainduz.

Argazkilariak



Irudiak sentimenduen eragile

Argazki-bildumek eta bideoek ezkontza eguneko momentu bakoitza gogorazteko eta sentimenduak azaleratzeko bide ematen dute. Hortaz, argazkilariak ateratako ez gain, gorde nahi dituzuen bertze uneak zerrendatzea lagun-garri gerta daiteke.

Une horien artean, gero eta ohikoagoak dira ezkontza aitzineko urduritasuna islatzen dutenak. Emaztegaiaren soinekoaren bueltan ateratakoak, amabixiaren zoriontasun keinuak islatzen dituztenak edo anai-arreben arteko besarkadenak...

Hitzartzeko momentuaren bueltan emozioa gori-gori islatzen duten argazkiak egin daitezke: lagunak agurtzen ari direnean, jantziei begiratzen dietenean, elkar ikusten duten momentuan... Ingurua atzendu eta momentuaz gozaten hasten direnean azaleratzen diren irribarreen, laztanen eta musuen irudiek ere barruak mugiarazteko balioko dute. Azkenik, bazkariaren eta dantzaldiaren momentuak ez luke hutsik egin behar. Oro har, momentu goxoak eta bat-batekotasuna ardatz dutenak gailenduko dira.

Argazkilaria ezagutu eta eroso sentitu


Argazkiak zehaztearekin batera, argazkilariarekin hartu-emana eraikitzea garrantzitsua gerta daiteke. Horretarako, ezkontza egunaren aitzinetik beraren lanak ezagutzeko eta elkarren berri izateko hitzorduren bat zehaztea komeni da. Boda aitzineko bilduma bat egitea kamara aitzinean erosotasuna lortzeko ere mesedegarri izan daiteke.

Hori bezain garrantzitsua da harek dituen eskaintzei erreparatzea. Gaur egun, erraterako, bideo laburrak egitea moda-modan dago. Hori bai, salneurriari erreparatzean gibelego lana aintzat hartu behar da. Gorabehera handiak egon daitezke, baina gogoan izan argazkiak egokitzen, bideoak sortzen eta lana mimatzen eman duten denbora ez dela hutsala... Guztia hitzartua delarik hitzarmena idatzi eta sinatzea komeni da.

LA ESTUDIO FOTOGRAFIA
GOVER
Fernando Vergara
argazkilaria

EZKONTZA ARGAZKILARIAK
hola@fotogoverbodas.com
www.fotogoverbodas.com
943 840 113 - 647 930 484





Gonbidatuak ere argazkilari

Ezkontza egunean toki guztietan egotea ezinezkoa izaten denez, momentu guztiak gorde ahal izateko, gonbidatuak argazkilari lanetan jartzea aukera ona izan daiteke.

Batetik, mahaietan erabili eta botatzeko kamerak paratu eta egunaren bukaeran biltzeak, erritualaren ondotiko momentu lasaiagoak, seriotasun guttiagokoak... biltzeko aukera eskain diezazuke.

Bertzalde, argazki horiek egunean bertan bildu nahi izanez gero, uneko argazki kamerak aukera bikaina dira. Sokak jarritz eta ateratako argazkiak bertan zintzilikatuz, gonbidatuek kuxkuxeatzeko aukera izanen dute. Edo nahiago izatera, gonbidatuei horiek liburu batean itsatsi eta egunean bertan zerbait idazteko eska diezaikezu.



IGOR APARICIO
- FOTÓGRAFO -
- www.igorapario.com -

639 82 86 21
info@igorapario.com

Zaldúa argazkilariak
Elizondo - Doneztebe www.fotozaldua.com
948 580 491 948 450 364



ARGAZKI ERREPORTAJE NATURALAK, EZBERDINAK ETA DIBERTIGARRIAK

ALEXGAZTELUMENDI
FOTOGRAFIA

615 747 028
WWW.ALEXGAZTELUMENDI.COM

Loreak eta landareak

Ezkontza bakoitza...



...berezia da guretzat

Jaime Urrutia 21 | Tel. 948 58 10 53 | ELIZONDO

LORE SORTAK
LORE-LANDARE KONPOSIZIOAK
NATURALAK ETA ARTIFIZIALAK

ZU loredenda
dekorazioa
osagarriak



Altzate, 33
31780 BERA zuloredenda@hotmail.com
Tel.: 948 625 786

 Hitzordua
eskatu behar da
T. 948 59 22 00
NARBARTE



Andregaien erramuetan espezialistak • Elizen dekorazioa
Serpenti kanoiak • Ezkontza oparietan aukera zabala
Ilerako apaingarriak • Arrak • Ligak • Gonbidapenak

www.gardenesther.com • 

Apaingarri

xume eta dotoreak

Ezkontza-apaingarrietan

joera minimalistak gailenduko dira.

Naturaltasuna izanen da tendentzia eta barreneko zein

kanpoko ospakizunetan lore zein landareek indar handia hartuko dute.

Aulkietan, jatetxeetako mahaietan, zintzilik, txokoetan apaingarri... izkin guztietan ikusiko ditugu, baina zalantzarik gabe, andregaiak daramanak bilduko ditu begirada gehien.

Sorta arinak

Sortak behar bezala aukeratzeko, soinekoari eta gorputzaren formari ez ezik, ezkontza garaia erreparatzea komenigarri gerta daiteke. Bolumen handiko soineko klasikoekin *bouquet* erako sorta biribil eta tikiak nabarmentzen dituzten heinean, soineko soilagoentzat irregularrak dira egokienak.

Ezkontza-estiloaren arabera, berriz, kolore argiak, biziak, leun edo ikusgarriak aukeratu beharko dira. Dena dela, garrantzitsuena eroso sentitzea denez, arinak aholkatzen dira.

Oroigarriak

Izan daitezela praktikoak eta originalak

Ezkonberrien aldetik detaile bat da lagunei eta senitartekoei ezkontzara etortzeagatik zerbait oparitzea. Erregalu praktikoa eta originala baldin bada, orduan seguru da etxera eramatea «mahaietan atzenduta» utzi gabe. Eta gainera neska-mutilentzat berdin balio baldin badu, orduan eta hobe. Oliba olio on bat duen botilatxoa, oinak neka-neka eginak daudenerako sandalia batzuk, Unicef, Mugarik Gabeko Medikuek, Intermon Oxfam edo antzeko erakundeen txartel solidarioak, kosmetiko naturalak, libretak eta agendak, pertsonalatuak dauden poltsak, opari ekologikoak eta abar.



Bitxiak

Nahitaezko osagarriak

Izan bitxi berriak, aspaldiko piezak edo norbaitek utziak, ezkontza batean nahitaezko osagarriak dira. Behin jantziak, oinetakoak eta *look* orokorra erabakita dagoenean, hurrengo pausoa ospakizunean erakutsiko diren bitxiak hautatzea izanen da. Ez dago andregairik, nabarmentzea batera gustuko ez izanagatik ere, ezkontza eguneko eraztun, belarritako edo lepokoari arreta berezia jarriko ez diotnik.



Gonbidapenak

Ezkontzaren aurkezpena

Gonbidapenaren bitartez formalizatzen da ospakizuna. Jantzia, orrazkera, makillajea eta lore-sortarekin asmatzea bezain garrantzitsua da gonbidapenarekin ere asmatzea. Ezkongaien estiloa eta nortasuna erakutsiko dute ezkontza gonbidapenek eta, bidena-bar, informazio garrantzitsua emanen diete gonbidatuei. Originaltasunari eta sormenari bide emanez, harrituta utziko dituzue gonbidatuak.





**DISEINU PERTSONALIZATUAK.
ZURE IDEIA "BITXI" BIHURTUKO DUGU.
ETORRI ETA IKUSI**



Banataile ofiziala:
VICEROY CASIO CITIZEN ECO-DRIVE

Kanttonberri, 6 BERA | 948 630 751
Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519




...BERTAN...
zuen ezkontza ahaztezingo izan dadin.

bortzirudi@gmail.com 948 631 521


ZURE EZKONTZA GONBIDAPENA PERTSONALIZATUA!!

Une berezi horretarako, ezkontza gonbidapen berezia lortu ezazu pertsonalizatutako gonbidapenak aurkeratuz, zure argazki eta testuarekin.



Hitzordua hartzeko NARBARTE 686 74 77 13
648 84 71 67

Mailposta publikitate banaketak inprimategia




Hotel Churrut
HOTEL

Foruen plaza · BERA | T. 948 62 55 40 | T. 948 625 542
www.hotelchurrut.com

ezkontzetan adituak

Jatetxeak

Gosea ase

Ezkontza urduritasuna baretzeko eta gosea asetzeko tokia da jatetxea. Gonbidatu guztien dastamenerako, sarrerakoak txokoka antolatu eta norberak berea hartzeko aukera nabarmentzen ari da. Horrela, guztien gustuko zaporeak dastatzea eta neurria norberak hartzea ahalbidetuko duzu. Gazia eta gozoa. Eztei-tartaz gain, dantzaldirako unean gozozaleen gozamerako itxura bertsuko *cupcakesak* ere jar ditzakete osagarri. Koloreak eta zaporeak nahasi eta gonbidatuak pozik utzi!

Jakiek ez ezik, bai jatetxeak eskaintzen dituen zerbitzuek, baita haren kokapenak ere indar handia izan ohi dute aukeraketan. Izan ere, aurten aire zabaleko ospakizunak izanen dira nagusi. Naturaren erdian, ingurune eder eta lasaietako ezkontzak dira bai ezkongaiak baita gonbidatuak ere bilatzen dituztenak. Ez itsutu eta kontuan hartu ttikikeria ttikienen eragina uste baino handiagoa izan daitekeela.



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

- EGUNEKO MENUA
- SAGARDOTEGI MENUA
- KARTA
- OGITARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK ...

- 350,160 eta 40 lagunendako hiru jangela ·
- Bazkalondoa nahi bertze luzatzeko aukera ·
- Auto eta autobusendako aparkalekua ·
 - Haurrendako jolasparkea ·
 - Koktelarako leku aproposa ·

Eskatu gure ezkontzetako menua!!

T. 948 625 472 | Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com




BEOLA
Posada-Palacio

Zuen egun berezia ospatzeko leku berezia

Nagusia, 13 · ALMANDOZ | 948 585 300
www.beola.com







3 jantoki ✨ menu desberdinak eta pertsonalizatuak ✨ 2 aparkaleku



ZURE EGUNA URDAIN HOTELEAN OSPATU!

Aukera aunitz zuen nahiak betetzeko

Ezkontza zibila

Koktela, Bazkaria, Dantzaldia, Barra librea, Afaria...

"Mesa dulce" txokolatzeko iturriarekin, photocall...




Bidaiak



Atsedena hartzeko garaia

Bukatu dira prestaketak direla eta egindako har-
rat honatak. Etapa bat itxi eta bertze bat hasi
aitzinetik geldialditxo bat ez dago inoiz soberan.
Dena ongi lotzeko eta merezitako atsedena lor-
tzeko aholku batzuk bildu ditugu segidan. Itxi
begiak eta irudikatu... gainerakoaz ez arduratu!



**HEMEN
DAGO ZUEN
AMETSETAKO
BIDAIA**



bidaiak

Eztegara pasealekua, 30 A
31780 BERA (Nafarroa)
Tels.: 948 630 451 / 948 630 641
info@takatukabidaiak.com
www.takatukabidaiak.com

Urte sasoi eta bidaia mota

Urte sasoiaren arabera antolatzea komeni da. Horrek klima ez ezik, prezioa eta norakoan aurkituko dugun egoera, guztiz baldintzatzen baitu. Ondotik, egin nahi den bidaia mota aukeratu behar da. Bertzeak bertze, aunitz bidaiatu duten bikoteei paradisu exotiko ohikoena gomendatzen zaizkien heinean, aunitz ibili ez direnei aldaketa eta jende masa handiko herrialdeak saihestea gomendatzen zaie.

Itzultzeko aitzakiaren bila...

Egonaldiaren arabera, toki gehiago edo guttiago bisitatzeko komeni da, baina bidaia-agentzia gehienek helmuga guttiago eta bakoitzean denbora gehiago egotea aholkatzen dute, zerbait ikusteke uzteak itzultzeko aitzakia ere sortzen baitu. Era berean, herrialde bakoitzaren berezitasunak aintzat hartu eta errespetatzeko, aurrez ezagutzea komeni izaten da: elikadura eta klima, garraio zerbitzua, hizkuntzak, ohitura eta tradizioak...

Profesionalei utzi eta baietz irabazi!

Eta azkenik, nahi dena zer den argiturik, aurrekontuaren arabera egokitu behar da. Aunitzetan bikoteak bere kabuz antolatzen hasten dira, erreserbak han eta hemen eginaz. Aitzitik, zenbat denbora behar izaten da horretarako? Eta zinez al da merkeago? Antolatzen hasi aitzinetik bidaia-agentzietan galdetzea eta informatzeak ez du kalterik egiten... Gerora ere, zuena baita azken hitza!





Iruñea - Irun errep. 60km
31760 ETXALAR
T. 948 635 000 | F. 948 635 263
info@etxalar.com
www.etxalar.com



EZKONTZA ZIBILAK

ORAIN AZKUA ARETO BERRIAN EZKONTZA ZIBILAK OSPATZEKO AUKERA ESKAINTZEN DIZUGU



EGUN OSOA, INORA MUGITU GABE, BERTAN PASA DEZAKEZUE: ZEREMONIA, BANKETEA ETA DANTZALDIA

- 275 lagunentzako jantokia
- Ezkontzetako menu aldagarria
- Xoko politak bai kanpoan baita barruan ere
- Eguraldi onarekin musika terrazan
- Ongi etorri koktela
- Lunch afariak
- Gaua hotelean pasatzeko prezio bereziak taldeentzako
- **SUITA OPARITZEN DUGU EZKONTZA GAUEAN**



BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta
probexu aukerak!



BIANDITZ
NEKAZARIEN ETXEA

%5 DESKONTUA
pensu ekologikoetan

Zalain Ind. 5 | BERA
T. 600 97 73 39

bixkiak
KIROL ETA MODAKO GURPE GONDO

%5 DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 81 10

bortzirudi

DESKONTUA
%15 Kamisetan **%10** Iprenta lanetan
%5 kopia, enkusaduzio eta plastikazkoetan 3€tik gora
*Aurrekontutik kanpo

Eztegara, 26 esk. behea | BERA
T. 948 63 15 21

elika Dietetika eta elikadura

%5 DESKONTUA
kontsultan

Itzea, 6 behea | BERA
T. 948 63 12 83

intzuri
OPTIKA

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bittiria kalea, 28 | LESAKA
T. 948 62 75 50

Feri Sarri
LAND

%50 DESKONTUA
sarreran
%10 DESKONTUA
firolina eta penduloetan

Irisarri, 1 | IGANTZI
T. 948 92 89 22

KATEA BIKE

%5 DESKONTUA
konponketetan

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 63 12 18

kafetegaria

%10 DESKONTUA
lenterian

Behoko Plaza, 10 | LESAKA
T. 948 62 75 14

LIRAIN
ESTETIKA ETA ONIZGAI ZENTROA

%5 DESKONTUA
kosmetikan
%5 DESKONTUA
oparietan 50€tik gora.
Promozioetan ezik

Iparralde, 1 | BERA
T. 948 62 57 17

LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA

%40 DESKONTUA
matrikulan

Komentu, 2 | LESAKA
T. 948 63 74 00

oreka
nutrizioa eta dietetika

%5 DESKONTUA
kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 73 73

Ostargi optika

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA
T. 948 63 07 53

HKpodologia
NORA MAIZA

5 € DESKONTUA
ibilkeraren azterketa digitalan

Legia, 42 | BERA
T. 688 87 81 77

Semper
matrikularia

%10 DESKONTUA
matrikulan

BERA | T. 948 63 02 98

Semper
matrikularia

%10 DESKONTUA
matrikulan

LESAKA | 948 63 82 99

ttipi-ttapa

%10 DESKONTUA
esketan

Koskontako bidea, 7-1 | LESAKA
T. 948 63 54 58

txinelka

%10 DESKONTUA
erosketa guztietan

Plaza Zaharra, 25 | LESAKA
T. 948 63 75 94

Urdu Bera
BERRIEN BARRIOAN 1. BARRIOAN

%20 DESKONTUA
urteko abonaren matrikulan

Toki Ona Kiroldegia | BERA
T. 948 63 02 15

ze la
KIROLAK

%5 DESKONTUA
erosketa guztietan

Altzate, 6 | BERA
T. 948 63 05 98

ZU
loredenda dekorazioa osagarriak

%5 DESKONTUA
lore moztuan 30€tik gorako erosketetan

Altzate, 33 | BERA
T. 948 62 57 86

Martxoaren 9an ospatuko dituzte inauteriak

Larunbatean etxez etxe eta baserriz baserri ibili ondotik, gauean triki-bertsio-afaria izanen dute Barrankan

JAIONE ZABALO

Ezcurrako inauteriak martxoaren 9an ospatuko dituzte. Goizean denak frontoian elkartu ondoren musikaren laguntzarekin herrian barrena ibiliko dira kaleak alaituz.

Arratsaldean, berriz, baserriak alaituko dituzte eta frontoian umeendako jokoak eta txokolatea meriendatzeko aukera izango dute.

Gauean, triki-bertsio-afaria izanen dute Barranka jatetxean, Mendiluze eta Zubeldia bertsolariekin eta Oihana-Oihana trikitilariekin.



Larunbatean ikusiko dira mozorroak.



JAIONE ZABALO

Arkupeak elkartekoen herriko bazkaria

Urtero bezala, aurten ere Arkupeak elkarteko herriko 15 bazkidek bazkaria ospatu dute otsailaren 24an. Eguerdian, elkarteko hildako kideen omenez meza entzun ondotik, Barranka jatetxean ederki bazkaldu dute. Giro ederrean ibili dira bazkarian eta bazkalondoan ere.

Udaletzeko balkoitik olana zintzilikatuko dute Emakumaren Egunaren harira

Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Udaletzeko balkoitik errespetuan oinarritzen den eskualde baten aldarrikapenak irudikatzeko olana zintzilikatuko da, emakumeen eskubideen aldeko borroka gogoratzeko zein eskubide horiek betetzea eskatzeko.

Eraberritzeko asmoa duten zazpi landa-denda behar ditugu

Garapen Ekonomikorako Departamentuak, OEIN sozietate publikoarekin batera, **laguntza, aholkularitza eta prestakuntza plan** bat sortu du landa-ingurunean merkataritza-jarduera hobetu eta eguneratu nahi duten dendarietzat. Animatu, eta aurkeztu orain eskabidea!

nori zuzendua: 2.500 biztanletik beherako herrietako denda txikiei

negozio-mota: Elikagai-dendek izango dute lehentasuna

eskabideak: Martxoaren 15ra arte (hau barne)



IZENA EMATEKO

Çin / 848 426 000 / comercio.navarra.es

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra



62 mendizale bildu ziren Hondarribin egindako irteeran. FERNANDO ETXEBERRIA

Mendi-irteera Arantzara martxoaren 20an

453 lagun ari dira ikastaroetan eta 155 kidek kiroldegietan izena eman dute

FERNANDO ETXEBERRIA

Otsailaren 19an 62 lagun bildu ziren Hondarribin egindako mendi-irteeran. Itzuliaren ondotik, Batzoki jatetxean bazkaldu zuten eta ondotik, Tomasen eskutik, kantuan eta dantzan ibiltzeko aukera izan zuten. Pablori mendi-irteera antolatzeko egindako ahalegina eskertu ondotik, hurrengo hitzordua zehaztu zuten: martxoaren 20an, asteazkenean, Arantzara joanen dira.

453 lagun ikastaroetan

Elkarteko kideek bai mendi-irteeretan baita kiroldegietan

ere, parte-hartzeak goiti egin duela adierazi dute.

Amaiurren, Beran, Donamarian, Donezteben, Elgorriagan, Elizondon, Leitzan, Oronoz-Mugairin, Urdazubin, Lesakan... eskaintzen ari diren ikastaroetan, erraterako, informatika, yoga, luzaketak, frantsesa, mugikorren erabilerak, margolaritza, gimnasia, uretako gimnasia, memoria tailerra eta igeriketa arrakastatsu gertatu dira.

Guztira 453 lagun ari dira ikastaroetan eta 155 kidek eskualdeko kiroldegietan izena eman dute.

342 lagun Dantxarinako Euskal Kantuen Eguna

Martxoaren 21ean euskal kanta tradizionalak oroitzeko eta Erramun Martikorenaren ahotsaz gozatzeko, Dantxarinako Euskal Kantuen Eguna joanen dira 342 bazkide. Joseanen musikak eta Guatekeak ez dute hutsik egingen. Bide batez, Ramonxo omenduko dute.

Mus txapelketako finala martxoaren 28an

Mus txapelketako txapeldunek, txapeldunordeek eta hirugarren sailkatuek finala jokatuko dute martxoaren 28an Donezteben. 09:00etan hasiko dira partidak Santa Maria jatetxean eta bertan bazkalduko dute. Sari-banaketa bazkaldoan egingen dute.



FERNANDO ETXEBERRIA

Herrietako bestak ospatu dituzte

Herrietako bestak ospatu dituzte eta mus txapelketek ez dute hutsik egin. Donezteben Juanito Iribarren eta Marcos Juanena; Elgorriagan Juan Miguel Benito eta Marcelino Altzu; Beran Miguel eta Pedro Lizasoain; Arizkun Lorenzo Agirre eta Pedro Mari Camino... izan ziren garaile.

Ortzegun honetan hasiko da Errigoraren kanpaina

Martxoaren 22ra arte ekologikoak diren eta ez diren olioak, kontserbak, arroza eta kamisetak eskatzen ahal izanen dira

TTIPI-TTAPA

Bortz urte maite duguna elikatzen lelopean, martxan da aurtengo Errigora. Dagoeneko bortz urte joan dira *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* kanpainaren lehenbiziko edizio hartatik, eta geroztik 240.000 litro olio eta 700.000 ontzi kontserba baino gehiago banatu dituzte. Joan den urtean, erraterako, 6.500 sukaldetan bat egin zuten kanpainarekin. Hala ere, Errigoratik adierazi dutenez, «zenbakietatik harago, maite duguna elikatzea da kanpaina honen balio nagusia» eta helburu horrekin ari dira lanean. Aldi honetan, Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak (12 ontziko sortetan) eta arroz-sortak eskatzen ahal izanen dira, ekologikoak direnak edota ez

direnak. Horrez gain, Errigoraren kamisetak ere prestatu dituzte, helduentzat zein haurrentzat.

Eskaerak

Martxoaren 7tik 22ra bitarte egiten ahal izanen dira eskaerak: online, *errigora.eus* webgunean, ala tokian tokian banatuko diren eskuorriak betez. Produktuak jaso, ordea, bi txandatan egingen dira. Apirilaren 5tik 17ra olio eta kamisetak banatuko dituzte eta maiatzaren 22tik 31ra kontserbak eta arroza. Ordainketa produktuak jasotzean egin beharko da.

Bi berritasun nagusitu ditu aurtengo kanpainak: kamisetak eta arroza. Kamisetak «marka ikusarazteko zein komunitatea indartzeko asmoz» egin dituzte eta bortz eurotan



Goian Errigorako produktuak jasotzen eta behegian kontserba-sortak. ERRIGORA

eskainiko dituztenez, «ez dira diru-iturri izanen». Arrozaren kasuan, online bakarrik eskatu ahal izanen da, stock mugatua dutelako.

Olioari dagokionez, bortz etxetako olioak izanen dira aukeran. Banaka eta lau botila batera eskatzen ahal izanen dira. Kontserben kasuan, bi, hiru edo lau ekoizleren produktuak jaso daitezke sorta bakoitzean eta denetariko aukera dago: pikillo piperrak,

zainzuriak, orburuak, barazki-menestra, potxak, tomate frijitua, kremak eta arroza. Kamisetak, berriz, helduentzat gris ilunak egin dituzte eta moreak haurrentzat.

Zozketak TTIPI-TTAPAREN eskutik

TTIPI-TTAPAK bi kontserba-sorta zozketatuko ditu, ekologikoa eta arrunta, Mecna duten harpidedunen artean. Sarituek TTIPI-TTAPAREN bulegora etorri beharko dute saria jasotzera.



MARTXOAREN 7TIK 22RA

ESKATU NAFARROA HEGOALDEKO OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA —5 LITROKO BIDOIETAN— ETA ARROZA ZEIN KONTSERBAK —12 ONTZIKO SORTETAN— EKOIZLEAREN JATORRIZKO PREZIOAN WWW.ERRIGORA.EUS WEB GUNEAN



'Neskatoak' dokumentala martxoaren 7an

Biharamunean grebalarien bazkaria egingen dute, 14:30ean plazan

JM BARRIOLA

Emakumezkoen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi antolatu ditu Leitzaldeko talde feministak.

Egun osoko egitaraua

00:00etan, herriko plazatik abiatuta, aldarrikapen burrunbadarekin hasiko dute eguna. 08:00etan, herriko plazan txoko feminista paratuko dute. 11:45ean zutabeen irteera egingen dute, plazatik, Ateka-beltzetik eta eskolatik abiatuko dira. Eguediko 12:00etan, berriz, Lopeneko biribilgunean elkarretaratzea egingen dute.

Ondotik, grebalarien bazkaria egingen dute 14:30ean. Bazkalondoan, 17:00etan, dantza ekuatorriarrak dantzatu ahal izanen dituzte. 19:00etan manifestazioa egingen dute, plazatik abiatuta eta guateke



Joan den urteko manifestazioan.

feministarekin borobilduko dute eguna. Musika, pintxoak, edatekoa... izanen dituzte.

Martxoaren 7an dokumentala

Bezperan, ostegunean, *Neskatoak* dokumentala eskainiko dute, 22:00etan udaletxean.

Jon Abrialek zuzendutako dokumentalak frankismo garaian Ipar Euskal Herrira neskatolanetan aritzera joan ziren Baztan-Bidasoko emakumeen historia du ardatz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Leitzeko elkarte buru-belarri

Otsailaren 16an urteko lehendabiziko batzarra egin zuen Leitzeko kontsumo taldeak. 2019rako asmo eta lan-ildoak erabaki zituen eta Bertatik Bertara ekimenaren harira, ekintza-plana zehaztu zuten. Berrikuntza gisa, ekintzak bi sailetan banatu dituzte: herrikoak eta eskualde mailakoak.

Turismoan frantsesa erabiltzeko ikastaroa antolatu dute

JM BARRIOLA

Turismo, merkataritza eta bestelako zerbitzu arloetan sare sozialak, hizkuntzak eta zergen inguruko ikastaroak antolatu dituzte Plazaola Patzuergo Turistikoak eta Cerderna Garalur elkarteak elkarlanean. Horrela bada, martxotik ekainera bitarte Lekunberrin eta Leitza bost ikastaro eskainiko dituzte.

Leitza eskainiko dutena maiatzaren 6an abiatuko da eta turismoaren eremuan erabiltzeko frantses profesionala landuko dute. Zehaztuta di-

tuzte egunak, maiatzaren 6an, 8an, 13an, 15ean, 20an, 22an, 27an, 29an eta ekainaren 3an eta 5ean bilduko dira, 10:00etatik 12:00etara udaletxean.

Ikastaro horrekin turisten beharrei erantzun nahi diete. Izan ere, «turista gehienak frantsesak dira eta Edernodea/Eurovelo proiektuei esker gehiago izatea aurreikusi da». Oinarrizko ezagutza mailan trebatuko dira eta «harrera egiten, inguruari buruzko azalpenak ematen laguntza eskaintzen...» ikasi ahal izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Illarregi anaiak punta-puntan

Joanes Illarregik Nafarroako Bertsolari Txapelketaren bueltan Iruritan jokaturako kanporaketa irabazi zuen. Horri esker, finalurrekoetarako txartela eskuratu zuen. Xabatek, berriz, otsailaren 23an Getxon XVIII. Abra Saria lortu zuen. Zorionak bikote!

EH Bilduk programa aurkeztuko du martxoaren 21ean

EH Bilduk agintaldiaren balorazioa egin eta aurrera begirako programa lantzeko bilkurak egin ditu. Martxoaren 7an abiatzekoa zuen Leitza Hausnartu parte-hartze prozesua. Martxoaren 14an bilera egingen dute udaletxean, 18:00etan.

Zuhaitz mugarroetara bisita egin dute

Nafarroako Gobernuako Ingurugiro Zuzendaritzak Ixkibar eta Urkizuko pago mugarratuak ezagutzeko hitzordua egin zuen. Gabriel Saralegik eta Jose Migel Elosegik gidatu zuten bisita eta Nafarroatik zein Gipuzkoatik 20 lagun inguru bildu ziren.

Oialde gunean liburutegia eginen dute

Guraso Katolikoek Elkarteak Oialde lokala Udalari eman dio, baldintzapeko donazioaren bitartez

JM BARRIOLA

Guraso Katolikoek Elkarteak pasa den larunbatean, otsailaren 23an, batzarra egin zuten eta 29 lagun elkartu ziren. Hizpide izan zituzten gaien artean garrantzitsuenak Oialde izeneko lokala Udalari baldintzapeko donazioan ematea izan zen. Baldintzapekoa planteatu zen, betiere, lokal horren helburua liburutegia izatea edota elkartearekin bat egiten duten helburu fundazionalen bat eginen duen erabilera bat ematea delako. Ahobatez erabaki zen, beraz, denoi ir-

tenbide egokia iruditu zitzaizen Udalaren planteamentua. Beraz, Udalak hurrengo agintaldian egonen diren PILEko deialdietan diru-laguntza eskatzeko aukera izanen du. Bertan, espazioak uztartuko dituen liburutegi moderno eta eroso bat egotea da helburua: haurrek etxeko lanak egiteko, isiltasunean ikasi edo irakurri ahal izateko, ordenagailuetan lan egin edo kontsultak egiteko, prentsa irakurtzeko... Inbertsio handia egitea espero da. Udalak datorren agintaldian dena burutzea du helburu.


Agirrek finalerdietarako txartela lortu du

Otsailaren 24an Orozkon jokatu zuten partidaren Agirre eta Arrizabalagak 18-5 irabazi zieten Ainhoa Romero eta Amaia Aldairi. Horri esker martxoaren 10ean jokatu diren finalerdietara sailkatu dira.



MASTER CUP

UDALAREN URTEKO ARGINDAR KONTSUMOA



LEITZAKO UDALA

Energia planak ekarpen nabarmenak

2016an onartutako Udal Energia planari esker aurreztea lortu dute. Dagoeneko urtean 22.000 euro baino gehiago aurrezten ari dira, urteko kontsumoa 119.063 eurotik 96.973ra jaitsiz. Horretarako, potentziak jaitsi, kontratuak Goienerrera pasatu eta plakak autokontsumorako bideratu... zituzten.

Kaxkabeltza elkarteak lau afari oparitu ditu

Herriko Kaxkabeltza elkarteak beraien *photocall*arekin argazkia atera eta otsailaren 28an Facebook atarian 'gustuko dut' gehien lortu zituenari lau pertsonendako afari bat oparitu zion.



KAXKABELTZA

Kontrolik gabeko suteak Okabion eta Tranpatxon

Giro bero eta haizetsuaren eraginez, bi sute izan ziren herrian. Suhiltzaile boluntarioak eta Nafarroako Suhiltzaileak aritu ziren lanean. Udalak «modu egokian eta baimenekin» erretzeko deia egin du.



SUHILTZAILEAK

Umore Ona elkarteko ohiko batzarra martxoaren 16an

Elkartean bilduko dira eta bi deialdi antolatu dituzte: 17:00etan eta 17:30ean

TTIPI-TTAPA

Datorren martxoaren 16an, egingen dute Umore Ona elkarteko Bazkideen Ohiko Batzar Orokorra. Elkartean bertan bilduko dira eta bi deialdi izanen dituzte: 17:00etan lehendabizikoa; eta 17:30ean bigarrena.

Egungo egoeraz eta 2019rako aurrekontuaz ariko dira

Bilkuran, besteak beste, honako alderdiok landuko dituzte: aurretiko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta, bidezkoa bada, horren ones-

pena; oroitza txostena, gastuak eta balantzea; eta 2019rako aurrekontuen onespina. Komisioko bodega-arduradunaren, presidentearen, diruzainaren eta bertze bi kideren hautaketa ere egingen dute. Bukatzeko galderak erantzunen dituzte.

Fitxen eguneraketa

Batzarra iragartzearekin batera, egun dauden 243 bazkideen-fitxak eguneratzeko deia egin dute goizuetakoumoreona@gmail.com beraien e-maila bidaltzeko eskatuz.

Festak antolatzeko lehendabiziko bilera egin dute

Herritarrek joan den ostegunean, otsailaren 28an, egin zuten herriko festak antolatzeko lehendabiziko bilera. Udaletxean elkartu ziren eta hasierako proposamenak bildu zituzten. Gehiago ere egingen dituzte eta parte hartzeko deia luzatu dute.

2019ko zerga egutegia argitara eman du Udalak

2019ko zorrak ordaintzeko epeak zehaztu dituzte eta webgunean daude eskura: ibilgai-luen gaineko zerga apirilaren 12a arte ordain daiteke; jarduera ekonomikoen gaineko zorrak ekainetik uztaileira; tasak irail hasierarako eta kontribuzioa azarorako.



Zazpi ikasle ari dira euskara ikasten: sei lehen urratsean eta bat B1 mailan.

Euskara ikasteko taldeak martxan dira herrian

TTIPI-TTAPA

Aurten, euskara ikasteko taldea sortu da Goizuetan. Nafarroa Iparraldeko Euskara Mankomunitateak kudeatzen ditu eskualdeko herrietan euskara ikasteko taldeak eta horiek sortzeko baldintzetako bat ikasle kopurua da. Azken urteetan baziren interesa zuten

batzuk baina ez ziren taldea osatzera iritsi. Iaz, ordea, bazkide kopuruaren baldintza aldatzeari esker, hirura jaitsi zuten gutxieneko ikasle kopurua. Hala, azaroaz geroztik zazpi lagun ari dira: sei lehendabiziko urratsean eta bat B1ean. 2007/2008 ikasturtetik herrian ez zuten aukera hori.

Nerabe zein helduentzako zinema eta haur zein gurasoentzat karaokea

TTIPI-TTAPA

Inauteriak bukatu aurretik ondorengo ekitaldiei begira hasiak dira. Martxoaren 9an, larunbatean, Kontuen Eguna izanen dute, mozorroak janzteko azken eguna. Dena dela, ekitaldiek segida izanen dute. Udalaren, Kultur taldearen eta

euskara zerbitzuaren eskutik, martxoaren 10ean, nerabe eta helduei bideraturiko *Campeones* filma eskainiko dute, 18:30ean ganbaran. Martxoaren 16an, larunbatean, berriz, haur eta gurasoentzako karaokea antolatu dute. 18:00etan toki berean bilduko dira.

Ikasle eta irakasleak haziak ereiten

Eguraldi bikaina lagun, Xalto eskolako ikasle eta irakasleak zuhaitzak landatzen aritu ziren otsailaren 20an. 70 haritz inguru landatu zituzten eta ilusio handiz aritu ziren lanean.





Emakumeek gizonezkoek prestatutako bazkaria dastatuko dute. ARTXIBOKOA

Martxoaren 8rako egun osoko egitaraua prest dute

TTIPI-TTAPA

Emakumeen Nazioarteko Egunean, martxoaren 8an, aresoarrek ere beraien aldarrikapenak plazaratuko dituzte.

11:00 aldera bilduko dira eta herritik Leitzara oinez joango dira, hango manifestazioarekin bat egiteko. Bazkalordurako, berriz, herrira itzuliko

dira. Herritarrei parte hartzeke deia luzatu diete.

Gizonezkoek prestatutako bazkaria

Gizonezkoek emakumeentzako bazkaria prestatuko dute. Pake Toki elkartean bilduko dira eta Sastinean jarriko dute bazkarirako izena emateko papera.

'Emakume Raketistak. Lehen eta orain' dokumentala

Ilunabarrean, 19:00etan, *Emakume raketistak. Lehen eta orain* dokumentala eskainiko dute. Ikusleek emakume pilotari profesionalak ezagutzeko aukera izanen dute, haien lekukotasunen bidez. Testigantza horien artean Felisa Pellejero herritarrenak izanen dira.

Afari autogestionatua

Eguna Pake Tokin egingo duten afari autogestionatuarekin borobilduko dute.

Sute baten eraginez, herriko pinadi txiki bat erre da

Eskualdeko hainbat herritan suteak izan dira otsailean: Berroetan, Beintza-Labaienen, Saldiasen, Goizuetan, Leitzan... Baita Areson ere. Antzuola inguruan erreketak egiten ari zirela gertatu zen ezbeharrak. Sua kontrolatu ezinik, pinadi txiki bat erre zen.

Egur loteak eskatzeko epea zabalik da

Udalak jakinarazi duenez, sutarako egur loteak eskatzeko epea zabalik da matxoaren 8a arte. Eskaerak udaletxean bertan egin daitezke eta prezioak honakoak dira: lotea etxera eramatea 190 euro; lotea pistan jasotzea 90 euro; eta lotea zutik 45 euro.

ALMACO BAZTAN

www.almacobaztan.com

GRUP **GAMMA**

Etorri Almacora

LIKIDAZIOA

Sekulako aukerak



ARRAS PREZIO BAXUAK

merkealdia

MARTXO BUKAERA ARTE

manparak **-%70**

dutxaontziak **-%30**

-%40 **%15**

-%60...

altzariak, txorrotak,...

Errepide nagusia, Elizondo Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857

BAZTAN

Elizondo izanen da eskualdeko gazteen topagunea

Leitzaldea, Baztan eta Bortzirietako Bulkada Eguna martxoaren 16an antolatu du Ernaik, hainbat ekitaldirekin

TTIPI-TTAPA

Leitzaldea, Baztan eta Bortzirietako gazteen topagunea izan nahi duen Mendialdeko Bulkada Eguna egingen dute martxoaren 16an Elizondon, Ernai erakundeak antolatuta, *Bulkada berrien garaia* da lelopean.

Larunbat horretan, 12:00etan Arizkunenea Kultur Etxean, *Eskualdeko belaunaldi ezberdinak* izenburupean mahai-ingurua egingen dute. 13:00etan ostatz ostatu bertsopoteo desafioa egingen dute Leitzako Illarregi anaien eta Lesaka-

Hendaiako Txoperena anai-arreben artean. 14:30ean Antxitonea trinketeen herri-bazkaria izanen dute eta ondotik kantaldia. Bazkarirako txartelak Lesakako Arrano ostatuan, Leitzako Torrea tabernan, Doneztebeko Titin eta Baztango Intzan eta Zubipuntan paratu dituzte salgai. 19:00etan, Elizondoko karrketan barna karropoteoa egingen dute eta 23:00etatik aitzinera, Gazte-txean kontzertuak eskainiko dituzte Sofokaos eta Herdoil taldeek. Ondotik, musika izanen da DJ Map-Hrekin.

Okintza ekologikoaz ikastaroa egingen dute Elizondon

Okintza ekologikoari buruzko ikastaroa antolatu du Udalak, Xabier Akizu adituaren eskutik. Martxoaren 22an Arizkunenean izanen da, 18:00etatik 20:00etara eta martxoaren 23an, Elizondoko eskolan, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

'Sistema alda dezagun, ez klima' bizikleta ibilaldia

Martxoaren 15erako klima aldaketaren kontra sistema aldarazteko ikasle greba deitu dute mundu osoan. Deialdiaren helburuarekin bat eginez, bizikleta ibilaldia egingen dute egun berean 19:30ean Elizondotik plazatik abiatuta, herrian barna itzulia egiteko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zigako inauteriak giro ederrean joan dira

Eguraldi ederra lagun, inauteri arrakastatsua izan dituzte Zigan. Gazteen artean ez zen kolore, umore eta mozorrorik falta izan. Afarian guztira 55 lagun bildu ziren. Ortziralean, berriz, Orakunde egunean ere 44 pertsonak bakaldu zuten eta ondotik urteroko jokoetan aritu ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Biovallée ingurua bisitatuz Frantzian

Frantziako Val de Drôme eskualdean egon berri dira 19 baztandar Arras Baztan fundazioak antolatutako ibilaldian. Helburua 2000. urteaz geroztik lantzen ari diren Biovallée lurralde garapen estrategia ezagutzea izan da. Bertako nekazarien %38 ekologikoan ari da (Frantzian %3,5 bakarrik).

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE abokatua



Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea

Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKARAZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

Martxoaren 8ko greba eguna girotuz egitaraua prest

Egun osoan 'Zaintzaren izeberga' plazan, emakatea, bazkaria, tribial feminista eta manifestazioa izanen dituzte Elizondon

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 8ko greba feminista girotzeko egitaraua zabaldu da prestatu dute egun horretarako Elizondon. Egun osoan, Zaintzaren izeberga ikusgai izanen da Elizondoko plazan. 10:00etan plaza girotzea egingen dute. 12:00etan emakatea. 14:00etan bazkaria izanen dute (bakoitzak berea eraman beharko du). 17:00etan tribial feminista egingen dute (merriendarako zerbait ekarri



Hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

beharko da). 19:00etan eskualdeko Bizitzak erdigunean! manifestazioa egingen dute.

Udako jostaldietarako begirale bila

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 22an zabaldu da Baztango udako jostaldietarako begiraleen lan-poltsa osatzeko deialdian izena emateko epea. Interesa dutenek

dokumentazioa aurkeztu behar dute martxoaren 15eko 14:00 baino lehen, Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuan edo euskara@baztan.eus helbide elektronikoan.



TESTUA ETA ARGAZKIA: NEREA MORTALENA

Arraiozko inauteriak giro ederrean

Otsailaren 22 eta 23an ospatu zituzten Arraiozen inauteriak. Giro ezin hobea eta eguraldia lagun izan zituzten. Ortziralean gazteak etxez-etxe ibili ziren baserrietan eta Mardea auzoan. Larunbatean, berriz, herrian barrena. Batzartegian, 45 lagun bildu ziren afarian. Haurrak ere ederki ibili ziren.

1951tik
Casa Cambra
 lentzeria-etxea

Merkealdia
Azken egunak

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Argindar garbiaren alde 'Energia Ona' kanpaina martxan

Argindar berriztagarria eskaintzen duten kooperatibetan izena emanen duten ehun bazkide berri erdietsi nahi dituzte udarako

TTIPI-TTAPA

Energia Ona kanpaina aurkeztu berri dute. Helburu nagusi bezala, argindar berriztagarria eskaintzen duten irabazi asmorik gabeko kooperatibetan izena emanen duten ehun bazkide berri erdietsi nahi dituzte udarako. Otsailaren 26an Arizkunenean egindako aurkezpenean aipatu zuten, «gure eguneroko jardueretarako erabiltzen dugun energia, batik bat, kanpoko iturrietatik ailegaten da. Motor bidezko garraioan petrolioaren deribatuak erabiltzen dira. Etxeetan, berriz, kontsumitzen dugun energia, gehienbat, elektrizitatetik edo petrolioaren deribatuetatik lortzen dugu. Elektrizitatea, ordea, energia primarioetatik dator». Gaur egun, Nafarroan, energia-iturri primarioak petroliotik eratorritakoak dira. Era horretan, egunerokoan erabiltzen dugun elektrizitatea petrolioaren edo gasaren eratorrietatik heldu da nagusiki. «Denok dakigunez, -aipatu zuten- petrolioaren konbustioa da negutegi efektu sortzen

duen gas isurketen sortzaile nagusia, Lurra berotzea eraginez. Bertzalde, petrolio erre-serbak mugatuak dira, eta etorkizun beltza aurreikusenezake petroliotik eratorritako energiarendako».

Kanpainaren antolatzaileek aipatu zuten, «elektrizitatea merkaturatzea, gehienbat, konpainia handien esku dago, herritarrei energia-zerbitzua eskaintzeaz harago, beraien etekinak lehenesten dituzte».

Duela urte batzuk, elektrizitatea merkaturatzen duten irabazi asmorik gabeko kooperatiba batzuk sortu ziren. Hauek, elektrizitate berriztagarria merkaturatzen dute eta bazkideei erabakiak hartzeko aukera ematen diete. «Gure inguruan bi nabarmen genitzake: Energia Gara eta Goienar. Kooperatiba horietako partaide izanik, klima aldaketaren kontrako borrokan parte hartuko dugu, etorkizuneko energia agortzeko arriskua gutituko dugu, gure energiaren hornikuntza burujabeagoak izanen gara eta tarifak igoera saihestuko dugu».



Energia Ona kanpainaren aurkezpena. UTZITAKO ARGAZKIA



ARGAZKIA ETA TESTUA: MAITANE MARITORENA

Anizko I. Pala txapelketan 12 bikote

Hamabi bikote lehiatu dira hilabete batez Anizko I. Pala txapelketan. Irabazleak Gabon Gamio aniztarra eta Patxi Barberena zigatarra izan dira, bigarrenak berriz, Kani Lakosta eta Xanti ibarra, Anizkoa eta Zigakoa hauek ere. Elkartean afaria izan zuten parte-hartzaileek.

Haziaren Eguna martxoaren 9an Gartzainen

Gartzaingo herriak, Ezkaldoko elkarteak eta Hazitik Hozie taldeak antolatuta Haziaren Eguna egingen dute martxoaren 9an. Larunbatean 10:30ean hazien trukaketa frontoian. Eguerdian, Jakoba Errekondoren eskutik, hitzaldia aditzeko aukera izanen dute. Ezkaldoko elkarteak.

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Landa-saltokiak modernizatzeko programa abian

2018ko programan parte hartu zuen Erratzuko Altxuko denda bisitatu zuten Nafarroako Gobernuako ordezkariak

TTIPI-TTAPA ERRATZU

Nafarroako Gobernuako Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak abian jarri du Landa Merkataritza Programaren bigarren edizioa, saltokian bertan egiten den aholkularitza pertsonalizatu-ko plana, non 2.500 bizilagun baino guttiagoko herrietan kokatutako elikadura-saltokiek parte har dezaketen. Deialdi horretan interesa duten saltokiek martxoaren 15era arte dute eskaera egiteko epea.

Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusiak, Maitena Ezkutarik, Altxuko Denda bisitatu zuen Erratzun, 2018ko dinamizazio-programan parte hartu zuen saltokietako bat. Koldo Uribe, saltokiaren arduradunak aurkeztu du berriki bere esperientzia eta balantze «arras positiboa eta abe-

rasgarria» egin du prozesuan izan duen parte-hartzeaz. Uriberen erranetan, ekimenak bere negozio-aukerak zabaldu ditu publiko potentzialarekiko. Erratzuko bizilagunei eskaintzen dien zerbitzua optimizatzearaz gain, herria bisitatzaren duten pertsonak erakarri nahi ditu. «Online daukadan presentzia hobetu behar dudala ikusarazi didate, eta teknologiek negozioarako eskaintzen dizkiguten aukerak probestu behar ditudala», azaldu du Uribek.

Errentagarritasuna eta bizimodua hobetzea

Laguntza- eta prestakuntza-programa apirilaren 1ean hasiko da eta zazpi saltokiri emanen die laguntza gehienez. Parte-hartzeari buruzko informazio gehiago jasotzeko



Gobernuako eta udal ordezkariak, Erratzuko Altxuko dendan. NAFARROAKO GOBERNUA

eskuragarri daude www.comercio.navarra.es webgunea, CEINen helbide elektronikoa edo 848 42 60 00 telefono-zenbakia.

Iaz bezala, landa-saltokien berritze- eta modernizatzeproposamenak azken helburu bat du xede: saltokiaren errentagarritasuna eta saltzailearen bizimodua hobetzea.

Proposamena saltokien titularrei dago bideratua, toki-koaren balioaren alde eginez egungo negozio-eredua aldatu edo hobetzeko beharra daukatena. Arreta pertsonalizatua eskaintzen zaie saltokian, CEIN enpresa publikoko teknikarien eta garapen-agentzien kolaborazioarekin.

Prozesua negozio bakoitzeko azterketa pertsonalizatutik abiatzen da eta prestakuntza espezializatua, jarduketan ezarpenen jarraipena eta emaitzen azken balorazioa eskaintzen ditu. Horretarako, negozioaren pertsona titularren konpromiso argia eskatzen da prozesu osoan zehar.

Programak eskaintutako prestakuntza-jarduerak aurrez identifikatutako beharretara egokitzen dira, bai saltokia kudeatzen duten pertsonentzako, bai inguruko garapen-agententzako ere. Jarduera horiek komunikazioaren, marketin bisualaren, salmenten eta analisi ekonomikoaren eremuetan kokatzen dira.

Xorroxin ur jauzia: jardun duala

Turismoaren ikuspuntutik erakargarriak diren herrietan, lan-ildo berriak ireki eta turistak erakartzera animatzen du programak, turismo-espazioetako hobekuntzak aprobetxatzeko.

Erratzuko saltokiaren kasuan, aholkularitza eman zaio saltokiaren jabeari Xorroxingo ur-jauzia bisitatzeko asmoz herrira iristen diren turistak nola erakarri jakiteko, baita saltokiaren seinaleztapena hobetzearen beharri buruz ere, ikusgarriago ager dadin. Aktibo turistiko hobe batek, hala, negozioarako publiko

potentzial handiagoa ekarriko du.

Xorroxineko ur-jauziaren kasuan, Baztango Udalak 2017. eta 2018. urteetan egindako jardunen kostuaren erdia lagundu du diruz Nafarroako Gobernuak, Gorostapolo auzoa jendez arintzeko helburuarekin.

Ur-jauzia bisitatzeko ibilbide berri bat egin da eta horretarako mozketak egin behar izan da trazatuaren parte batean, bidea irekitzeko. Gainera, erortze-arriskuan zeuden zuhaitzak moztu behar izan dira eta informazio-panel berri bat eta



Xorroxingo informazio-panelaren aitzinean. NAFARROAKO GOBERNUA

informazio-seinaleztatze berriak instalatu dira herri-erdigunean.

Hori eginda, 7,4 kilometro luze den ibilbide zirkularra osatu

da. Aitzinekoa baino zertxobait luzeagoa da egungo ibilbidea, baina herrigunetik pasatzeko aukera ematen du eta egokia da pertsona guztientzako.

Mailaz upatzeko aukera du helduen errugbi taldeak

Lehen fasea lehendabiziko postuan finitu du eta orain bigarren fasea jokatu beharko du

TTIPI-TTAPA

Kontent dira errugbizaleak eta kontent jokalaria. Bozpasei hilabete pasatu dira Sarako Izarra errugbi elkarteko helduen taldea Euskal Herriko ligan jokatzeko hasi zenetik eta emaitza bikainak eskuratu ditu. Lehenbiziko fasean jokatutako partida guztiak irabazi ditu eta horri esker, lehendabiziko postuan finitu du, 57 punturekin, bigarren gelditu den Logroño taldeak baino bederatzita puntu gehiagorekin. Orain, bigarren fasea jokatuko du Elorrioko, Irungo eta Logroño taldeen aurka eta hor lehendabiziko sailkatzen denak mailaz upatzeko aukera izanen du.

Harrera Herriko Etxean

Otsailaren 23an, lehen fase horretako azken partida Bil-

boko taldearen aurka jokatu zuen etxeko taldeak eta 43-14 irabazi zuten saratarrek. Egun horretan, Iñaki Laskurain Euskal Herriko Errugbi Federazioko lehendakariaren bisita ere izan zuten. Battit Laborde auzapezak eta hautetsi batzuek Herriko Etxean errezibitu zuten eta eskerrak eman nahi izan zizkioten Sarako taldea ligan onartzeagatik.

Patxi Jauregi errugbi elkarreko lehendakariak ere bide beretik jo zuen, eta eskerrak eman zizkien denei, baina bereziki Jose Miguel Galdos federazioko idazkariari. Laskurain ere pozik agertu zen eta herriko errugbilarien joko nabarmendu zuen, «joko berezia» dutela aipatuz.

Herriko Etxeak Lur Berri gelan eskaini zuen krakadarekin borobildu zuten eguna.



Goian errugbi jokalaria eta behean Herriko Etxean egindako harrera. GANEX

Lizarietako suteak 550.000 eurotik goitiko kaltea

Otsailaren 16-17ko asteburuan Lizarieta inguruan izandako sutea «kriminala» izan dela iritzita, salaketa aurkeztu du Battit Laborde auzapezak. Halaxe jakinarazi du *Naiz.eus* atariak. Hedabide horretan ageri denez, «sastraka erretzetik harago sute horrek azken hamarkadetan garatutako zuhaitzen landaketa egitasmoari eginiko kaltea deitoratu du auzapezak». Oraindik, kalteak neurtu ez badituzte ere, 550.000 eurotik goitikoa izan daitekeela adierazi du auzapezak.

Sara Korrika trail lasterketarako dorsalak finituak

Martxo hondarreko asteburuan lasterkeriaz beteko da herria. Izan ere, agortu dira Sara Korrika taldeak antolatuta martxoaren 30ean egingen den taldekako lasterketarako dorsalak, baita biharamunean, martxoak 31, egitekoa den 22 kilometroko lasterketako dorsalak ere. Azken proba horren kasuan, hemendik aitzinera apuntatzen direnak itzarotzerrendara pasako dira eta hutsuneren bat geldituz gero, parte hartzeko aukera izanen dute. Hala jakinarazi du talde antolatzaileak.



Unama taldekoak Saran izanen dira martxoaren 24an. UNAMA

Unama taldeak Santa Katalina kaperan aurkeztuko du bere azken lana

TTIPI-TTAPA

Usopop jaialdiaren hamargarren urteurrena berezia izatea nahi dute antolatzaileek, eta helburu horrekin ospakizunak maiztera ez mugatzea erabaki dute. Motorrak berotzeko, kantaldia antolatu du martxoaren 24an, Santa Katalina kaperan.

Bolada luzean isilik egon den Unama taldea gomitatuko dute Sarara. Are gehiago, Usopop Diskak-i esker diska berria argitaratu du eta hori herrian aurkeztuko dute, martxoaren 24an. Taldearen bigarren lana da Santa Katalina

kaperan aurkeztuko dutena, *Iduzki Xuria* izenekoa.

Ez da eguneko hitzordu bakarra izanen, Daniel Bluberg abeslari eta musikari ezaguna ere bertan izanen baita konzertua eskaintzeko prest.

Egun osoan joste merkatua

Santa Katalina kaperakoa ez da igande horretako hitzordu bakarra izanen. Izan ere, egun osoan joste merkatua antolatu dute Lur Berri gelan.

Parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute, aitzinetik 06 20 33 17 54 telefonora deituta.

Hainbat sute izan ziren otsailaren 16-17ko asteburuan

Ibantellin, Larunen eta Mendibilen izandako suak hamar bat hektarea erre zituen, zorionek arbol gutti

MARIFA ETA KORO

Otsailaren 16-17ko aste hondarrean piztu ziren hainbat suteraren artean, gure inguruetan ere sofritu genitugun.

Larunbat ilunabarrean, ikustekoa zen Ibantellin ageri ziren sugarrak eta kea. Nahiz eta herriatik urrun dagoen eremua izan, sekulako lur-zatia hartzen zuela nabaria zen. Denbora berean, Ibanteli ondoan dagoen Larun mendian ere, hiru sute ikusten ziren, ttikixeagoak horiek.

Eta biharamuneko igande arratsaldean, bertze sute bat piztu zen, aldi honetan herriatik hurbil: Mendibileko hegoaldeko magalean. Oronozko eta Senpereko suhiltzaileak etorri behar izan zuten, eta gauerdiko alderako itzali zuten.

Hamar hektarea

Beharrik erretako eremuan arbol gutti zeudela, eta kaltea ez da haundiegia izan, baina hala ere, hamar bat hektarea kiskalduta gelditu dira.



Sua Mendibileko hegoaldeko magalean. MARIFA ETA KORO

Moldaketa politikak egiten ari dira azken hilabeteotan

Lapiztegiko maldan breia eta zebra-bideak berriro zitutzen urte hondarrean. Berriki, Madariko bidean zabalgunek egin dituzte, Sabideko sarrera moldatu, eta Ehitoneko bidea zimentatu. Eta azken egun hauetan Bentetako bideko ziloak tapatu dituzte.

Korrika eta Korrika Kulturala prestatzeko bilera

Otsailaren 22an Korrika eta Korrika Kulturala antolatzeko bilera egin zen. Hamar bat lagun bildu ziren, Zugarramurdi eta Urdazubikoen artean. Bi herrien artean 4 kilometro erosiko dira, eta Korrika Kulturalan zerbait antolatzeko martxan jarri dira.



MARIFA ETA KORO

'Herri ttiki, infernu haundi' herrian

Otsailaren 12an hemen barna ibili ziren Euskal Telebistako *Herri ttiki infernu haundi* saioko Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadi. Batzuekin eta bertzeekin aritu ziren, eta programa polita prestatu zuten. Otsailaren 21ean frontoian ikusteko aukera izan genuen, eta emanaldiaren ondotik, detaile polita izan zuten alkate eta zinegotziek, mandarra eman, zartagiak sutan paratu, eta ikusle guztientzat txistorra eta xingar pintxoak prestatu baitzituzten frontoian berean. Telebistan martxoaren 3an, joan den igandean, ematekoa zuten.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

www.ibargoyen.net **943 616 587**
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

Ihauteriak ospatu dituzte Senperen udaberriko aroan

Betiereko arrakasta bildu du otsailaren 23ko desfileak, usaian baino jende gutxiago izanik ere

PIERRE BASTRES

Eguzkia izan da arizale nagusia aurtengo ihauterietan. Bertze senpenter aintz bezala, Ramuntxo eta Ibai hor ziren eta Ramuntxok, Ibaien aitak, goren du besta herriko hau: «gure herriko giroa atzeman dut aurten ere, atsegin handia izan dut. Beharbada aitzineko urteetan baino jende gutxiago hurbildu da, aro ederragatik norabait ganak, doike». Halaber, zortzi urteko semea ere ihauteriak handizki gustatzen zaizkio: «urte guziz joaldunaz mozarrotua naiz, eta joaldun handiekin ibilki naiz desfilean. Aurten, desfilearen ondotik hartza lotan ikusi dugu automobil baten gainean, eta atzartzerat gaterat behartuak izan gara, azkarki inarrosi dugu!», aipatu digu Ibaik.

Armelle San Pantzarren auzia idatzi duenetako bat da, eta haren ustez, «ihauteriak azkartuz doaz urte zonbaitez geroztik. Idaztea ez dut usaia-ko aisialdia, baina auziarena aitzakia ona da adin jendearekin egoteko, eta plazer bat. Nagusiki eskuaraz egiten dugu auzia, ihauteriak euskal kulturaren barnean dira, bainan erdarazko erranaldi batzuk sartzea deliberatu dugu. Guretzat oreka ona daukagu, gainerat bilkurak eskuaraz egiten ditugu, partzuer guziek eskualdunak ez baldin badira ere». San Pantzar zeren hobendun zen galdeturik: «beroa-beroko gaiak ez ziren falta: *Tour de France*, Euskalraldia, Larrun Ez Hunkiko mugimendua, heldu den udako G7, jaka horiak eta bertze horrenbertze».



Senpereko ihauterietako irudi ikusgarriak. RAMUNTXO SAUBABER ETA PASCAL BAUDIER



UTZITAKO ARGAZKIA

'Ez dok hiru' martxoaren 24an Larrekon

Euskal Herriko imajinario musikaren errepaso ironiko, absurdu eta dibertigarria eskaintzen duen *Ez dok hiru* antzezlan eskainiko du Tartean antzerki konpainiak martxoaren 24an Larreko gelan. Sarrera bikoitza zozketatuko du TTIPI-TTAPAK Mecna duten harpidedunen artean.

Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko hainbat ekimen Urdazubín

IÑIGO IMAZ

Ugarana Emakume Elkartek aurten ere Emakume Langilearen Eguna ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu.

Elkarteko zuzendaritza osotzen duten Ana Alzuiet, Itziar Rementegi, Ainhoa Miura eta Anaxtaxi Bidartek lan polita egin dute herriko emakumeak plazara irten daitezzen.

Martxoaren 2arekin, Virginia Imazen antzerki komikoa ikusgai izan zen Kultur Etxean.

Hilaren 7an, 19:00etan, Nagore Laffageren amak hitzaldia emanen du Kultur Etxean.

Hitzaldiarekin batera, dokumentala ikusi ahalko da. Sarrera doan izanen da.

Martxoaren 8, 9 eta 10ean autodefentsa pertsonala lantzeko kirol tailerra, Leorlaseko eskola publikoaren kiroldegian (09:30-13:30). Izen-ematea, doan izanen da.

Martxoaren 8an elkarretaratzea eginen dute Herriko Etxearen aitzinean, 17:00etan eta martxoaren 9an, Lesakako sagardotegian afaria. Bazkideentzako autobusa doan izanen da. Salbatore plazatik 20:00etan abiatuko da.

«Urte anitzetako lanaren ondotik bete dut ametsa»

XABIER IBARGARAI PALA TXAPELDUN BURUZ BURU

TTIPI-TTAPA ERRATZU

Laugarren finalean lortu du Xabier Ibargarai lehen aldiz buruz buruko munduko pala txapelketa irabaztea. Erratzuar- rarak 3-2 irabazi zion otsailaren 16ko finalean Esteban Gaubeka armintzarrari, Bilbon, Bizkaia pilotalekuan. Lehia estua izan zen, ordu eta erdi-koa eta detaile ttikiek erabaki zuten azken aldiko finalik onena izan zen. Arras zail gelditu zitzaion partida irauli ahal izan zuen Ibargarai.

Lehenbiziko jokoa bizkaitar- rarak irabazi zuen: 10-6. Ondoko guztiak parekatuak eta borrokatuak izan ziren. Bigarrena 8-10 irabazi zuen Ibargarai, hirugarrena 10-9 bizkaitarrak, laugarrenean ia txapela eskura izan zuen Gaubekak, baina 1-5 galtzen joan ondotik Ibargarai bosgarren jokoa behartu zuen 9-10ekoarekin eta azkenekoa 8-10 irabazi zuen erratzuar- rarak.

Bizkarreko minak erabat ahantzita, bere betiko ametsa bete ahal izan du Xabier Ibargarai eta buruz buruko bere lehen txapela jantzi ahal izan du.

Aspaldiko ametsa beteta?

Hala da, urte anitzetako lanaren fruitua izan da, hamaika urte eta lau final jokatu ondotik, azkenean ametsa beteta.

Baina bidea aski zaila izan duzu...

Arras zaila, banituen zenbait arantza sartuta. Iaz ezin izan nuen finalerdia jokatu bizkarreko arazoengatik. Debutatu eta guttira, Bilboko Deportivon bizkarrean zartada bat eman zidan eta ordutik beti arazokin ibili naiz. Azkenean, hernia diskal bat neukan. Zorionez, orain bizkarra ongi dago, tratamenduak on egin dit, eta alde horretatik, kontent.

lazkoa kolpe handia izan zen...

Pala uztea pasa zitzaizun burutik?

Azkenean, txanpona airera bota nuen: «tratamenduak on egiten dit edo hemen gelditzen da nire ibilbidea». Zortea izan dut eta lana serio egin dut. Erran zidaten lana egin behar nuela bizkarra zaintzen, tratamendua ona zela, baina eguneroko lana behar zuela. Egunero bizkarra zaintzen dut, ariketak egiten ditut. Sufri- mendua, lana... baina azkenean txapela etxera. Hemen burugogorra ez bazara eta ez



Xabier Ibargarai txapeldun eta Gaubeka txapeldunorde. UTZITAKO ARGAZKIA

baduzu lanean segitzen, orduan bai ez duzula deus egitek- orik.

Ederki sufritutako txapela... Finala ere aski gogorra izan zen.

Gaubeka deus oparitzen ez duen aurkari horietako bat da. Zerbaitegatik ditu borts txapela. Pilotari ikaragarria da, historiako onenetakoa, onena ez bada. Hemendik aitzinera ere, 41 urte ditu, baina datorren urtean ere hor ibiliko da lehian. Afizionatuetatik erabiltzen ez zenituen posturak ere berresku- ratu omen dituzu...

Bai, nire aurkari- ek bazekiten nire ahulgunea non zegoen,

baina ez zekiten zergatia, ez nuen deus erraten. Pilota eskuinera goiti etortzen zitza- danean ezin nion gerriari jira gutzia eman, ezin nion pilo- tari kolpea tira eta frontisean sartzera joaten nintzen baka- rrik edo minarengatik kale egiten nuen. Goiko postura berreskuratu dut, azkenean postura hori herrian suabe- suabe entrenatzen joan naiz, baina suabe-suabe jota, parti- detan ez duzu deus egiten. Bizkarreko arazoak kendu ditut, orain ongi nago eta nire aurkari- ek ezagutzen ez zituz- ten posturak erabiltzen hasi naiz. Baina niretzat naturalak ziren, afizionatuetan horiek erabiltzen baintuen.

Inoiz baino hobe zaude?

Bai, kantxan gozatzen ari naiz. Egia erran arras kontent nago, ez bainuen uste halako maila emanen nuenik.

ERRATZUARRAK 3-2 IRABAZI ZION FINALEAN GAUBEKARI

Berako XV. Mendi Maratoi Erdian izena emateko aukera martxoaren 11n zabalik

TTIPI-TTAPA BERA

Apirilaren 14an jokatu- ko den Berako XV. Mendi Maratoi Erdi- rako izena emateko epea martxoaren 11n, astelehenean 15:00etan irekiko du Mantta- lek. 525 dortsal izanen dira partaideen eskura. Inskripzioa pb-organisation.com webgu-

nean egin ahal izanen da ba- karrik.

Izen-ematearen prezioa 28 eurokoa izanen da korrikala- ri federatuentzat eta 32 euro- koa ez federatuentzat. Behin inskripzioa egindakoan ez da dirurik bueltatuko, baina ko- rrikalariaren bajarengatik ti-



Ane Elzaurdia Berako Gau Krosean.

tulartasun aldaketak egin ahal izanen dira lasterketaren ai- tzineko ortzegunera arte.

70 lasterketa, borts garaipen

Manttalek mendiko nahiz erre- pideko 70 lasterketetan parte hartu zuen iaz eta borts garaipen lortu zituen, Gwendal Larque (Senpere eta Agerra) eta Ane Elzaurdiaren (Donos- tiako Sudur Krosa, Berako Gau Krosa eta Senpere) eskutik.



laz irabazle suertatu zen Gurutzeta sagardotegian egin zuten IX. Sagardoaren Txapelketaren aurkezpena. MAIALEN ANDRES

Zortzi bikote hasi dira IX. Sagardoaren Txapelketan

Maiatzaren 4an jokatu den finalerako txartel bila lehiatuko dira eta Uterga, Endika, Juanenea eta Ezkurra II.a ari dira

TTIPI-TTAPA

Erremonteko Sagardoaren Txapelketaren bederatzigarren edizioa abiatu da. Aitzineko zortzi edizioetan bezala, txotx garaian sagardoaz eta sagar-

dotegiez ez ezik, erremontez gozatzeko aukera izanen da.

Zortzi bikote hasi dira, bakoitza sagardotegi bat ordezkatzuz. Bi taldetan banatuko dira eta A taldean ariko dira;

Segurola eta Endika Urrutia saldiastarra (Petritegi), Aritz Juanenea saldiastarra eta Azpiroz (Larre Gain), Xanti Uterga doneztebarra eta Labaka (Bereziartua) eta Urriza-Zaldua (Gaztañaga). B taldean, berriz; Josetxo Ezkurra II.a doneztebarra-Garces (Gurutzeta), Goikoetxea V.a-Barrenetxea IV.a (Oialume Zar), Etxarri-Ion (Altueta) eta Ansa II.a-Agrrrezabala (Setien).

Formatua ohikoa da lehenengo fasean, baina aldatu egingen da bigarrenen. Bi taldeetako lehenengo bi sailkatuak finalerdietarako ligax-

kara sailkatuko dira eta ligaxka horretako lehenengo biek jokatu dute finala. Puntuaketa ohikoa: lau puntu garai-learentzat, bi 36-39 tanto bitartean egiten dituenarentzat, bakarra 32-35 artean eginez gero, bat bera ere ez 26-31 tanto artean egiten duenarentzat eta 26 tanto baino guttiagorekin galduz gero, puntu bat kenduko zaio bikoteari.

Lehenengo fasea otsailaren 28an hasi zuten (Uterga doneztebarra eta Juanenea saldiastarra izan ziren aurrez aurre) eta apirilaren 6an akituko da. Bigarren fasea apirilaren 11n hasi eta 27an bukatuko da eta finala maiatzaren 4an jokatu da Galarretan.

Urriza, Uterga eta Labaka 2018ko onenak

Javier Urrizak jaso du aurten ere urteko erremontista onenaren saria, otsailaren 23an Galarretan egin zen Erremonteen Egunean. Xanti Uterga doneztebarrak A multzoko erremontista onenaren saria jaso zuen eta Labakak B multzokoarena. Oroigarriekin batera, Amets Arzallus bertso-lariaren bertsoak ere jaso zituzten sarizat erremontelarietako eta erremontezaleek.



UTZITAKO ARGAZKIA

Beteranoen txirrindulari taldea abiatu da

Transportes Bidasoa-Eusomaster-Bodegas Inurrieta taldeko txirrindulari eta babesleen aurkezpena egin dute. Lesakako Luziano Mitxelena (M60), Leitzako Peio eta Iñigo Lizartza anaiak, Elizondoko Gaizka Otxandorena eta Iruñeko Ruben Alonso eta Victor Ganuza (M30) dira taldekideak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Etxeberria nagusitu zaio Corcherori

Urteko lehen aizkora desafioa erraz irabazi zion Zigako Joxean Etxeberriak Araiaiko Eloy Corcherori. Baztandarrak 49 minutu eta 2 segundo behar izan zituen zortzi kanaerdikoak eta lau oinbikoak mozteko eta Arabakoak, berriz, 54 minutu eta 57 segundo. Bakoitzak 3.000 euro jarriak zituen jokoan.



Finalista eta bertze parte-hartzaileak, antolatzaile eta laguntzaileekin batera, sari banaketaren ondotik. JOSE MARI TELLETXEA

Malerrekako XVII. eskuz binakako txapelak eman dira

Elite mailan, iaz bezala, Errekako Iker Salaberria goizuetarra suertatu zen txapeldun, oraingoan Otaduirekin bikote eginez

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE
Zazpi kategoriatan banatutako 176 bikote hasi ziren Doneztebeko Erreka elkarteak hamazazpigarren urtez antolatutako Malerrekako eskuz binakako txapelketan eta otsailaren 23an jokatu zituzten

finalak Sunbillako eta Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Elite mailan, bigarren urtez segidan txapeldun suertatu zen Errekako Iker Salaberria goizuetarra, oraingoan Olaburuko Otaduyekin bikotea eginez.

Sunbillan hiru final

Benjaminak: Munduate eta Landa (Lapke), 16 - Antimasberes (Barañain) eta Mendizabal (Kurene), 18.

Alebinak: Lanzeta eta Seguro (Atzapar), 14 - Raul eta Ibai (Haro), 18.

Infantilak: Sanchez eta Larrainzar (Oberena), 18 - Otaegi eta Otaegi (Txapagain), 3.

Donezteben bertze lau

Lau final nagusiak Donezteben jokatu zituzten.

Kadeteak: Loza eta Petite II.a (Barberito I), 14 - Egiuren eta Labaka (Ilunpe), 18.

Jubenilak: Alberdi (Ilunpe) eta Etxeberria (Tolosa), 14 -

Fernandez I.a (Fuenmayor) eta Etxeberria (Lapke), 18.

Bigarren mailako seniorrak: Matxin eta Elizegi (Zegama), 19 - Adonis eta Aranguren (Zazpiturri), 22.

Elite: Zubiria (Zazpiturri) eta Gorriti (Erreka), 9 - Iker Salaberria (Erreka) eta Otaduy (Olaburu), 22.

Errekakoak lau eta erdian

Ohikoa den bezala, txapelketa nagusiaz gain, Errekako pilotariek ere beraien arteko txapelketa jokatu zuten, buruz buru lau eta erdiaren barrenean. Hauek izan ziren bezperan jokaturako finalen emaitzak:

Aurrebenjaminak B: Oier Errandonea, 9 - Ekaitz Mada-riaga, 18.

Aurrebenjaminak A: Unai Oteiza, 15 - Santi Jimenez, 18

Benjaminak: Iker Anzizar, 18 - Mikel Ezkurra, 6.

Alebinak B: Amets Jauregi, 18 - Martin Zelaieta, 13.

Alebinak A: Martin Jimenez, 18 - Odei Iriarte, 17.

Infantilak B: Aritz Mariezkurrena, 18 - Patxi Oizartabal, 13.

Infantilak A: Beñat Apezetxea 18 - Aitor Agesta 13.

Kadeteak: Mikel Mikelarena 18 - Erik Garcia 10.

Jubenilak: Gaizka Agirre 18 - Patxi Loiarte 14.

Barberena, Etxandi eta Itoizek irabazi dute XIX. Paxaka txapelketa

TTIPI-TTAPA
Baztan-Errekako XIX. Paxaka txapelketako finala eta hirugarren posturako lehiak jokatu zituzten otsailaren 24an Irurritako Aranabia pilotalekuan. Final handian, Irurritako Xabi Barberena eta Iñaki Etxandik eta Erratzuko Kaiet Itoizek 9-4 irabazi zieten Arraiozko Mikel Mindegia eta Irurritako Egoitz Prim eta Miguel Angel Iñarreari.

Gero galtzaile suertatu zirenek irabazi zuten lehen jokoa,

baina ondoko bortzak txapeldunek egin zituzten eta hor erabaki zen finala. Ordubetik eskas iraun zuen eta emozio pixka bat falta izan zitzaion.

Hirugarren postua

Finalaren aitzinetik, hirugarren posturako lehia berdinduagoa izan zen eta iazko txapeldunak suertatu ziren irabazle. Irurritako Gorka Urtasun, Elizondoko Juan Mari Maia eta Erratzuko Joxe Itoizek 9-7 irabazi zieten Erratzuko Manu Irigoien,



Paxaka txapelkateko lau hirukote onenak, antolatzaileekin. JUAN MARI ONDIKOL

Arraiozko Xabier Mihura eta Irurritako Joxe Mari Salabururi. Ondotik sari banaketa egin zuten Oihana Prim eta Joxe

Itoiz, Irurritako eta Erratzuko alkateek, Laxoa Elkarteko Tiburtzio Arraztoa eta Josu Primekin batera.

AGENDA

MARTXOAK 7 - 21

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

LEKAROZ

'Azukrea behar dut'

Zubigaina etxean, martxoaren 7an eta 11n, 17:30etik 19:30era eta 10:00etatik 12:00etara, hurrenez hurren.

'Dieta egiten ari naiz. Etxekoak ez' solasaldia

Zubigaina etxean, martxoaren 14an eta 20an, 17:30etik 19:30era eta 10:00etatik 12:00etara, hurrenez hurren.

'Ez dut denborarik. Nola antolatuko naiz?' mintzagai

Zubigaina etxean, martxoaren 21ean eta 25ean, 17:30etik 19:30era eta 10:00etatik 12:00etara, hurrenez hurren.

ELIZONDO

'Nolako jangelak nahi ditugu eskoletan?' solasaldia

Arizkunenean, martxoaren 7an, 17:00etan.

TAILERRAK

GARTZAIN

Agroekologia eskola herritarra

Martxoaren 9an, frontoian, 10:30ean hasita.

DONEZTEBE

Irriterapia tailerra

Martxoaren 29an eta apirilaren 5ean eta 12an. Prezioa: 20 euro. Izen-ematea: 659 37 99 17.

ELIZONDO

Bailableak

Plazan, martxoaren 10ean, 12:30ean.

BERA

Koadernaketa tailerra

Liburutegian, martxoaren 14an, 18:00etan.



UTZITAKOIA

GARTZAIN Agroekologia eskola herritarra

Hazien trukaketa eta hitzaldia Jakoba Errekondoren eskutik. Martxoaren 9an, 10:30ean hasita.

IKUSKIZUNAK

LEITZA

'Neskatoak' dokumentala

Udaletxean, martxoaren 7an, 22:00etan.

DONEZTEBE

Firin Farandula taldearen emanaldia

Zineman, martxoaren 8an, 18:30ean.

Mendi Abesbatza kontzertuan

Elizako plazan, martxoaren 9an, 19:00etan.

'Smallfoot' filma

Zineman, martxoaren 10ean, 16:30ean.

'Carmen eta Lola' filma

Zineman, martxoaren 10ean, 18:30ean.

'Aralar, mundua leku den lurra' filma

Zineman, martxoaren 22an, 19:30ean.

ARESO

'Emakume Raketistak' dokumentala

Martxoaren 8an, 19:00etan.

BERA

'Kalean otso, etxean uso' ikuskizuna

Labiaga ikastolaren eskutik. Sarrera: 4 euro.

Kultur etxean, martxoaren 10ean, 17:00etan.

'Ghero: azken euskalduna' antzerkia

Kultur etxean, martxoaren 16an, 19:00etan. Sarrera: 7 euro.

Haurrentzako ipuin-kontalaria

Liburutegian, martxoaren 29an, 18:00etan.

GOIZUETA

'Campeones' filma

Martxoaren 10ean, 18:30ean.

Karaokea

Ganbaran, martxoaren 16an, 18:00etan.

IRURITA

'Karramarroa' antzerkia

Helduendako antzerkia. Dohainik. Gizarte Bilgunean, martxoaren 10ean, 19:00etan.

Dantza emanaldia

Pilotalekuan, martxoaren 16an, 19:30ean.

ELIZONDO

'Baubo' ipuin-saioa

Arizkunenean, martxoaren 17an, 19:00etan.

LESAKA

'Xuxuriak'

Josu Okiñenaren eskutik. Martxoaren 23an.

IRURITA

'Dantza' ikuskizuna

Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean, martxoaren 31n, 19:00etan.

BERTSOA

LESAKA

Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalaurrekoa

Joanes eta Xabat Illarregi, Josu Sanjurjo, Alazne Untxalo, Saioa Alkaiza eta Eneko Fernandez. Harriandoan, martxoaren 10ean, 17:30ean.

LEHIAKETAK

BAZTAN

Argazki lehiaketa

BRTren eskutik. Gaia: *lohia*. Martxoaren 15a arte, info@baztanrt.com helbidera.

ESKUALDEA

Inauterietako argazki lehiaketa

ERRAN.EUS atariak antolatua. Martxoaren 22ra arte bidal daitezke, erran.eus atariaren bidez.



BORTZIRIAK Emakumeen X. Mendi Itzulia

Goizean mendi itzulia, eguerdian elkarretaratzea eta ondotik bazkaria.
Martxoaren 10ean, 09:00etan Lesakako plazatik abiatuta.

KIROLA

BERA Xabierrera

Donezteben geldialdia 05:00etan. Iruñetik Xabierrera oinez (42 km).
Martxoaren 16an, Beratik 04:45ean abiatuta.

LESAKA Bortzirietako Emakumezkoen X. Mendi Itzulia

Martxoaren 10ean, plazatik abiatuta, 09:00etan.

ELIZONDO Arranomendira

Martxoaren 17an, plazatik abiatuta, 07:30ean.

Okolin

Martxoaren 24an, plazatik abiatuta, 07:30ean.

SENPERE Senpere trail

21 kilometroko ibilbidea. *Ibarrun auzoko pilota plazatik, martxoaren 10ean, 09:00etan.*

Gotorlekuen itzulia

42 kilometroko ibilbidea. *Ibarrun auzoko pilota plazatik, martxoaren 9an, 09:00etan.*

ARANTZA III. Mendi-lasterketa

Ekaitzela Elkartearen eskutik. *Martxoaren 31n, 09:30ean herriko plazatik abiatuta.*

OSPAKIZUNAK

DONEZTEBE Zuhaitzen eguna

Landaketak eginen dituzte. *Martxoaren 10ean.*

BAZTAN Kupelen irekiera

Jo ala jo kultur taldearen eskutik. *Martxoaren 16an.*

BORTZIRIAK Kinto besta

1944an sortutakoak. Arantzakoak, Igantzikoak eta Lesakakoak bilduko dira. *Martxoaren 23an.*

Nire aukera

«Bizitokia aldatuagatik lagunarteko harremanak mantendu behar dira»

ZURIÑE BUENO BARBARIN NARBARTEN BIZI DEN GAZTEA

«Besta egitea, lagunekin denbora pasatzea, pandereta astintzea, musika entzutea...» gustuko duen 19 urteko gazte «alaia» da Zuriñe Bueno. Legasan sortu bazen ere, Narbarten bizi da egun. Bien bitartean, bizitzak berak hala bideratuta, eskualdeko bi herritan bizi izan da: «zazpi urte nituela Aurtitzera joan ginen eta han bost urtez bizi izan ginen. Ondotik, Zubietara jo genuen». Narbartera «duela bi urte» joan ziren. Batean zein bertzean ederki laketu bada ere, gogoan ditu hasierako egun horiek: «lotsatu egiten nintzen... Zorionez, pixkanaka, harremana egin nuen eta orain gustura nago,



lagun asko egin ditut hemen». Bizitokia aldatuagatik ez ditu han eta hemen eraikitako harremanak itzaltzen utzi, eta horri esker, gaur egun, txoko askotan ditu lagunak: «batzuekin planak egiten ditut eta besteekin bestara ateratzen naizena egoten naiz». Guztien artean «aurtizarrak» ditu gogoan: «bereziki inauteri eta bestetan

haiekin elkartzeko aprobetxatzen dut». Ez da harrizkoa lagunak ez galtzea, «lagun on eta eskuzabalak» edonork eta edonon onartzen ditu eta. Bere izaeraren adierazle dira, halaber, egin dituen ikasketak: «erizain laguntzailea izateko ikasketak egin nituen eta Elizondoko zahar-etxean ordezkapen bat egiten ari naiz». Hasieratik argi zuen zein izanen zen bere bidea: «besteak laguntzen eta zaintzen lan egin nahi nuen». Ogibide horrek «bihotza zabaten» eta «norbere buruaz harro egoten» laguntzen duela iruditzen zaio. Lan eta lan artean atsedean hartzen ere badaki eta halakoetan «herrietako bestaren bat» baldin badago, ez du hutsik egiten: «giro polita izaten da». Biharamunean, berriz, lasaitasun ederra du eskura: «Bertiz bertan daukagu eta lagunekin edo familiakoekin arratsalde zoragarri bat pasatzeko txoko polita da». Plan bat edo bestea aski zaio zorientsu izateko: «nire ondoan familia eta lagunak daudela jakitearekin nahikoa dut». Eguneroko zorientasuna ageriko zaio irribarrean, baikorra da, ameslaria. «Ezer ez da ezinezkoa» berarentzat eta hortaz «atautxi, amaxi eta ama berriz besarkatzeko» ametsa ere bizi-bizi du.

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ETXALAR. Borda bat bere lur eremuarekin salgai. ☎ 661 12 15 40.

ERRENTAN EMATEKO

LESACA. Azkaine karrikako 3. zenbakian, apartamentua errentan emateko. Logela bat, bainugela, trasteleku tiki bat eta sukaldelagela. ☎ 628 04 20 47.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

DONEZTEBE. Merkatarien Karrikan lokala errentan emateko. ☎ 686 35 50 79.

LEKAROZ. Hiru Iturri ostatu-jatetxea errentan emateko (logelekin). ☎ 948 45 26 24 / 696 07 97 85.

SALGAI

BERA. Arrazoi pertsonalengatik bazarra traspasatzeko dute. 20 urteko antzinatea duen denda. ☎ 670 47 19 08 / 673 51 10 31.

LANA

ESKARIAK

Emakume bat adinekoak edo haurrak zaintzen edo garbiketan aritzeko lan bila. Hiru alorretan esperientzia duena. ☎ 644 96 38 20.

BAZTAN en bizi den 40 urteko emakumea lan bila. Hezkuntza aritua, ingeles maila altua eta ostalaritza eta sukaldaritza naturalean aritua. Base-riko lanetan ere aritzeko prest. ☎ 679 92 83 31 / 948 45 32 28.

BORTZIRIAK. Administrazio lanak egiteko lan bila. ☎ 677 60 62 92.

ETXALAR ko neska bat lan bila dabil. Haurrak zaintzen, garbiketan, ile-apaindegian laguntzaile bezala eta fabriketan esperientziarekin. Ikasteko gogoz. ☎ 687 22 23 20.

Neska bat interna bezala aritzeko lan bila. Hagitz erreferentzia onekin, arduratsua eta serioa. ☎ 602 18 24 68.

BAZTAN-BORTZIRIAK aldean, orduka garbiketa lanak egiteko lan bila: etxeak, portalak, bulegoak... ☎ 674 15 56 52 (Deitu arratsaldean).

BERA n bizi den emakume gaztea orduka lanerako prest, garbiketan edo adinekoekin. ☎ 631 85 29 14.

BORTZIRIAK. 50 urteko emakume euskaldun batek haurrak edo adinekoak zainduko lituzke. ☎ 650 40 79 78.

Esperientziadun emakumea adinekoak edo haurrak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko lan bila. Orduka edo interna. ☎ 644 85 81 34.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

Adinekoak edo haurrak zaindu edota etxeko lanak egiteko esperientziadun emakumea lan bila. Orduka edo interna moduan. ☎ 644 96 38 20.

Adinekoak edo haurrak zaindu edota etxeko lanak egiteko esperientziadun emakumea lan bila. Orduka edo interna moduan. Erizaintzako ikasketak. Ostalaritza ere esperientziaduna. ☎ 644 93 62 74.

Ostalaritza eta eraikuntza esperientzia duen gizona lan bila. ☎ 644 49 13 31.

ESKIAINTZAK

IBARDIN. Egutegian lan egiteko frantsesa dakien langilea behar dute, saltzaile eta kutxazain aritzeko. Curriculumak: beolaetxea@gmail.com.

DONEZTEBE. Auto tailer batean mekanikari lanak egiteko langilea behar dute. ☎ 948 45 03 33.

LESACA. Enpresa batek elektrizitatea eta mekanika dakien langile bat behar du. ☎ 948 62 53 95 (goizetan deitu).

BERA. Esperientzia duen estetizista behar dute. ☎ 948 630760

BERA. Asteburuetan eta udan haurrak zaintzeko eskualdeko norbait behar dute. Arduratsua, gaztea eta euskalduna. ☎ 677 35 72 56.

Esperientzia duen **administraria** behar dute egun erdiz aritzeko. Interesatuek: beolaetxea@gmail.com.

MIARRITZE. Garbiketa enpresa batean garbiketan aritzeko jendea behar dute. Frantsesez ulertzen dutenak. Astean 35 ordu lan egiteko, 03:00etatik 13:30era, asteburuak barne. Gida-baimena eta autoa izatea beharrezkoak, baina lanerako autoa enpresak utziko du. Ordua 10,02 euro. ☎ 0033 685 53 21 90.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,23
- 1.koa 4,10
- 2.koa 3,96

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,34
- 1.koa 4,20
- 2.koa 4,06

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 168,00
- Idixkoak 235,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,10/6,70
- 8-10 kilokoak: 4,90/5,40

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 56 €

Zerri gizona 1,090 €

Zerramak 0,460€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (otsailaren 15etik 22ra bitarteko prezioak)

BERA. Frantses pixka bat dakien neska eta mutila behar dituzte sei hilabetez Larungo benta batean zerbitzari aritzeko. ☎ 607 56 60 22.

IGANTZI. IrriSarri Landek denboraldi berrirako langileak aukeratu dituzte: sukaldaria, parrileroa, zerbitzaria, monitorea eta harreragilea. Bidali curriculumak 'Xorroxin' erreferentzia paratuz rrhh@irrisarriand.es. Edo hurbildu IrriSarri Landera, astelehenean 10:00etatik 13:00etara.

ARIZKUN. Enpresa batek langileak behar ditu. ☎ 649 62 88 49.

BERA. Churrut Hotelean lan egiteko zerbitzaria eta harreragilea behar dituzte. Bidali curriculumak: info@hotelchurrut.com.

IBARDIN. Denda batean harakina behar dute. Esperientzia izatea ez da nahitaezkoa, ikas daiteke. Gida-baimena izatea eta frantsesez jakitea kontuan hartuko dira. Egonkortasun ekonomikoa eskainiko da. Harremanetarako: rrhh@ventabiok.com.

BAZTAN-BORTZIRIAK-XARETA. Pintura lanetan aritzeko langilea behar da. Esperientzia izatea baloratuko da. ☎ (0033) 603 34 70 76 (momentuan hartzen ez badu, utzi mezua).

DANTXARINEA. Maspormenos-en lanerako jendea behar dute. Kirol artikulu eta arropa teknikoak saltzen dituzte: goi-mendikoak, lasterkeretakoak, kanpoko jardueretarako... Curriculumak: info@maspormenos.net.

IBARDIN. Sukaldari laguntzaile behar dute egutegian lan egiteko. ☎ 629 91 23 93.

IBARDIN. Asteburuetan jatetxean lan egiteko zerbitzaria behar dute. ☎ 629 91 23 93.

IBARDIN. Mendiko jatetxean sukaldari laguntzaile behar dute, asteburuetan eta jaiegunetan. Curriculumak: info@mendikoibardin.com.

IBARDIN. Frantsesa dakien langilea behar dute asteburuetan eguerdiko zerbitzua egiteko. Interesatuek idatzi: bentagorria@hotmail.com.

LESACA. Koxkonta jatetxean zerbitzari euskalduna behar dute. ☎ 608 75 72 28.

MOTORRAK

SALGAI

Hyundai Tucson 5p 1.6 131 CV 4X2 Klass Nav salgai. Gasolina. 2016koa. 5 urteko garantia (2021 arte). 17.500 km inguru. Nabigatzailea, Bluetooth, Wifi, ukipen-pantaila, atzerakako kamara... Azterketa guztiak tailer ofizialean. ☎ 676 44 15 80 (Aritz) Deitu arratsaldean.



VW California Beach furgoneta salgai. 2009koa. 156.000 kilometro. Hagitz egoera onean. ☎ 617 23 93 61.

ANIMALIAK

EROSI

Antxu-ardien larruak erosiko nituzke, egoera onean daudenak, pinturarik gabe edo ahalik eta pintura guttienarekin. ☎ 948 45 24 08 (Julio).

SALGAI

5 urteko **behi mestizoa**, belga-limusina, bere **aretzearekin** salgai. ☎ 627 71 96 43.

OPARITZEKO

3 hilabeteko **zakurkume mestizo emea** oparitzeko. ☎ 686 67 31 05.

DENETARIK

Katakume bat nahi dugu. ☎ 695 51 07 54.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

Zakurren mendiko GPS bat aurkitu dugu, mendian. ☎ 687 15 37 59 / 617 74 44 91.

RENAULT SANTESTEBAN TAILERRAK

CAPTUR ZEN TCE 90 CV
2018 urtekoa 13.000 km

CLIO IV LIMITED DCI 90 CV
2018 urtekoa 11.000 km

www.talleressantesteban.com
DONEZTEBE - T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

KATEA BIKE 2. eskuko **bizikletak**

800€

1.200€

1.500€

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

Lur

NOGÉN
LIV TIL DØDEN TOUR
+ SERRULLA

MARTXOAK
23 / 22:30

SARRERAK:
www.ticketea.com
Aurretik 12€
Elizondo: Mendi / Antza, Doneztebe: Titi
Egunean 15€

LAN ESKAINTZA

MOBILIARIO Y DECORACIÓN

AMETS

Berako dendan lanean aritzeko **saltzailea behar dugu.**
Altzarien arloan esperientziduna.
Ezinbertzekoa frantsesa jakitea.

Bidali zure Curriculumam
amets@mueblesamets.com

Logotipoak
Txartelak
Oroigarriak
Argitalpenak
Egutegiak
Boletoak

948 635 458
kulturkari.com

Maria Markategi sariak 2019

HERIOTZAK

- **Ainhoa Sanz Sagaseta,**
Doneztebekoa, otsailaren 14an, 46 urte zituela.
- **Marie Dupuy,** Sarakoa, otsailaren 14an, 92 urte zituela
- **Francisco Goñi Ariztegi,**
Oizkoa, otsailaren 15ean, 80 urte zituela.
- **Maritxu Oskoz Sarratea,**
Doneztebekoa, otsailaren 16an, 91 urte zituela.
- **Juan Cruz Iribarren Sukilbide,**
Azpilkuetakoa, otsailaren 17an, 82 urte zituela.
- **Jose Urroz Ezkurra,**
Doneztebekoa, otsailaren 19an, 81 urte zituela.
- **Juan Bautista Goñi Luziaga,**
Lekarozkoa, otsailaren 20an, 72 urte zituela.
- **Andresa Bikondoa Barrenetxe,**
Arizkungoa, otsailaren 22an, 90 urte zituela.
- **Celia Etxeberria Iguzkiagirre,**
Igantzikoa, otsailaren 24an, 66 urte zituela.

BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztan, Beran, Bortziritan eta Malerrekan

Hurbiltasuna eta begirunea

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

T. 948 05 90 90 izarratanatorio.com

**ESKELAK eta
HILBERRIAK**

eguneratuak
erran.eus
webgunean



OROIGARRIA

**Celia
ETXEBERRIA IGUZKIAGIRRE**

Igantzin, 2019ko otsailaren 24an,
66 urte zituela



Dena eman zenigulako
adiorik ez,
geroarte baikik.

ZURE ILOBAK

OROIGARRIA

**Maritxu
OSCOZ SARRATEA**

Donezteben, 2019ko otsailaren 16an

Zure bitartez ikasi dugu amatxi,
bihotzen solaserako nola
inoiz urrunik ez dagon.

Eta maiteak maiteekin direla
bakar-bakarrikan egon.

Izan zarena izan zarelako
esker bana ta bidai a on.



ZURE BILOBAK

IRACHE
tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK



**BAZTAN
BIDASOA**
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betika taldea zu laguntzeko

KONTATU KONTUAK



Solaslagunak sagardotegian. Aitzineko urteetako ohiturari eutsiz, otsailaren 23an Donostiako, Irungo, Iruñerriko eta Hondarribiko mintzlagunekin sagardoterira joan ziren eskualdeko solaslagunak. Lesakan egin zuten hitzordua. Lehenbizi Lesakako karraketan barna ibili ziren eta eguerdian Linddurrenborda sagardotegian elkartu ziren. 85 lagun bildu ziren eta kontatu dutenez, «giro ezin hobea» izan zuten. «Bapo bazkaldu ondotik, musikarien laguntzarekin kantari ere ibili ziren».

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berri eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, kontaguzuz!

Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo Whatsappez 744 48 43 61 zenbakira.

Ttipi-Ttaparen egoitzan

Etor zaitetz TTIPI-TTAPAREN bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

SORTZEAK

- **Xuban Oteiza Bengotxea**, Nartartekoa, otsailaren 19an.
- **Xian Gonzalez Jorge**, Lesakakoa, otsailaren 20an.
- **Lorea Irigoien Ballester**, Lesakakoa, otsailaren 6an.
- **Irati Itzayana Maceiras Txabarria**, Lesakakoa, otsailaren 21ean.

EZKONTZAK

- **Oumar Diawara** eta **Maud Pasquier**, otsailaren 16an Saran.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa

URTEBETETZEAK



Otsailaren 27an **Naiara Mendiburu Andresenak** 12 urte bete ditu. Zorionak zure familiaren partetik! Berendu goxoa prestatu bertan egonen gara eta!! Mila muxu eta besarkada potolo zuretako!



Iradi Arteaga Andresenak marxoaren 1ean 3 urte beteko ditu. Zorionak zure familiaren partetik!!!! Muxuak eta besarkada potoloak zuretako.



Aunitz urtez **Aitor, Joxema, Joxhe** eta **Ainara!** Martxoaren 16an, 18an eta 28an urteak beteko dituzue, lankideak gosariaren esperoan dituzue! A, **Ainara**, zurea heldu den urtean bi aldiz ospatuko dugu!




Aroa Larretxea de Mateo beratarrak 10 urte beteko ditu marxoaren 13an. Aunitz urtez etxeko sorgintxoari. Ongi pasa eguna eta muxu pottolo bat.



Arantza **Alazne Baleztena Goñik** 7 urte beteko ditu marxoaren 14an. Zorionak familia guziaren partetik, batez ere zure bi anaien partetik.



Zorionak **Fermin** Zeruntako familiaren partetik eta besarkada haundi bat.



Asier Telletxea Rekartek 7 urte beteko ditu marxoaren 26an. Aunitz urtez txapeldun! Egun ona pasako dugu zurekin. Muxu asko! Zure familia.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak, TTIPI-TTAPAREN bitartez! Bi bide dituzu:

Internetez: <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta Ttipi-Ttapa aldizkarian.

Bulegoan: Etor zaitetz Ttipi-Ttaparen bulegora: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.


PLAZAN BAZAN



HAMABIKOA

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

12




Hau desastrea,
autobus honetan!
Horra zer ikusten
duen autobus-
gidariak ispilutik...
Begiratzen duen
bakoitzean, gainera,
aldaketaren bat
gertatzen da.
Aurki itzazu bi
irudi hauen artean
dauden aldeak.
Hamabi dira guztira.

- 1 _____
- 2 _____
- 3 _____
- 4 _____
- 5 _____
- 6 _____

- 7 _____
- 8 _____
- 9 _____
- 10 _____
- 11 _____
- 12 _____


ZIRRIBORROA

Zein marrazki osatuko zenuke zirriborro honetatik abiatuta? Beharbada, zuhaitza? Manikura egin berri duen esku apaindua, eraztunak eta guzti? Edo nahiago duzu munstro baten atzapar beldurgarria? Hartu margoak eta ekin lanari!



ESAERA ZAHARRA

Esaldi hauek ez dira esaera zaharrak, erdi asmatuak dira denak, bat izan ezik. Zein ote da benetako esaera zaharra?



1. Astoaren mina, mandoaren atsegina.
2. Astoa, astoaren adiskiderik fidelena.
3. Astoak ispiluari musu.
4. Astoak arrantzarik egiten ez duenean, maiteminduta dagoen seinale.
5. Astoek eta ministroek, irribarra faltsu.
6. Astoak mandoari, belarri luze.
7. Etxeko astoa, nekazariaren orpoa.
8. Astoak eta mandoak, ardoak ditu baretzen.
9. Astoa beti setoso.

INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Ttipi Txartela

arekin
beti irabazten da!
DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

728

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Baztan Abentura Park - 2 tiket
Jon Kepa Irigoien Kerejeta | LEITZA
Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera
Juli Loiarde Mutuberria | ZUBIETA
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Jaione Korteja Jaurena | AZPILKUETA
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Jesus M^a Matxikote Irigoien | IGANTZI
Buatxabal - Kamiseta bat
Izaskun Etulain Iturralde | ANIZ
Martiko - Lote bat
M^a Jesus Agirre Ubiria | DONEZTEBE
Ibaizabal - Liburu bat
Gema Sein Retegi | LESAKA
Ibaizabal - Liburu bat
Iruñe Saez Cabrera | ARRAIOZ
Ibaizabal - Liburu bat
Izaskun Bazterrika Altxu | ITUREN
Ibaizabal - Liburu bat
Arantxa Mutuberria Ibarra | ETXAURI

2 sarrera



IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com

Eguzkilore bat



OKILLE TAILERRA
www.okilletailerraesp.blogspot.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LESAKA

www.lesakakoudalkiroldegia.com



2 sarrera

LIBURUAK



Gregorio katarrino
Itsasadarreko konturak

elkar
www.elkar.eus

LA GUNTZAI LEAK



www.lanku.eus



www.irrisarriland.eu